



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

2019-09-27 OSTIRALA / 700. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.US TOKIOM

700 

**SAKANAN ZER,
GUAIXE HAN**



GOZATU EUSKARA!

948 012 012

Dirulaguntzak matrikularako

www.euskaraikasi.nafarroa.eus
www.elaide.eus

Antolatzaileak

Udalak: Agoitz, Antsoain, Aranguren, Artzi, Atarrabia, Auritz, Barañain, Basaburua, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Erro, Estella-Lizarrá, Esteribar, Etxauri, Galar, Gares, Imotz, Luzalde, Odieta, Oltza Zendea, Orkoién, Uharté, Ultzama, Zizur Nagusia.

Mankomunitateak: Irantzu, Izarbeibar, Sakana.
Batzorde Nagusiak: Aezkoa, Erronkari, Zaraitzu.



Laguntzaileak



la bi urte dira pentsio duinen aldarrikapena astero kalean dagoela.

Pentsio publikoen aldeko "belaunaldiarteko" deia

Larunbatean, 12:00etan, Altsasuko Foru plazatik abiatuta. Deitzaileek pentsiodunak, emakumezkoak, langileak eta gazteak manifestazioan parte hartzera deitu dituzte, "etorkizunagatik ezinbestekoa da batasunetik borrokatzea"

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Sakanako Pentsiodunen, Jubilatuen eta Adinduen Koordinakundeak deituta, pentsio duinen aldeko manifestazioa egingen da. Koordinakundeko kide Fernando Iriarte Larreak azaldu digunez, "bizitzaren azken etaparako gutxieneko ekonomia eta asistentzia baldintzak sortzea exijituko dugu, lehenik pertsonengan pentsatu behar da". Koordinakundeak biharko manifestazioa "partehartzailea eta, ezinbestean, etorkizuneko ikuspegia duena" izatea nahi du, "inor hotz utziko ez duena". Horregatik, koordinakundeak manifestazioa "belaunaldiartekoa" deklaratu du. Pentsiodunen ahotsa entzutearekin batera, feministena eta gazteena ere entzuteko aukera izanen da, "euren etorkizunagatik mugitzen ez badira, panorama beltza izanen baitute".

Iriartek azaldu digunez, "manifestazioarekin jende gehiagorengana iritsi nahi dugu, asteleheneroko mobilizazioekin bat

egin dezaten". Koordinakundeko kideak azaldu duenez, "jokoan dagoena ez dira soilik gaur egungo pentsioak, batez ere etorkizunekoak dira". Koordinakundeko kideek gizarte segurantzaren eta ongizate estatua bera "arriskuan" ikusten dute, "aurreneko mediku kontsultatik, botiken berrordainketatik pasaz, adinduen egoitzekin, dependentzia eta bestelakoekin segitzeko".

Egoera izotz-mendiarekin alderatu du Iriartek: "pentsiodunak izotz-mendiaren puntan gaude baina, azpian, Gizarte Segurantzaren eta Ongizate Estatua. Madrilen ez dute ezer egiten. Guk uste dugu Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak aukera dutela, eta dirua ere, legalki gu-

"JOKOAN DAGOENA EZ DIRA GAURKO PENTSIOK, BATEZ ERE ETORKIZUNENKOA DAUDE JOKOAN"

txieneko pentsioak 1.080 eurora arte osatzeko. Horrela pertsona pila bat pobreziatik ateratzeko, gehienak emakumezkoak. 2010etik ari gara horrekin".

Koordinakundeko kideak nabarmendu duenez, "soldata pobrea, pentsio pobrea. Lanbidearteko Gutxieneko Soldata 735 eurotik 900 eurora igotzearekin Gizarte Segurantzaren kutzak diru sarrera nahiko dezente izan du". Hego Euskal Herriko administrazioek Lanbidearteko Gutxieneko Soldata 1.200 eurora arte osatzea aldarrikatu dute.

Iriartek gogorarazi du duela urtebete Gizarte Segurantzaren auditoria eskatu zutela. "Baina Madrilen ez dago borondaterik. Beti daude Gizarte Segurantzari mailegua egin behar diotela esanez. Ez da egia. Gu ez gaude maileguarekin ados. Pentsioak, Gizarte Segurantzaren eta guztia aurrekontuetan jasotzea nahi dugu. Ez daude sartuta eta Madrildik, beti, erruduntasun konzeptuarekin dabilta: guk ez

dugu kotizatu, guk ez dugu enplegu duinik... gure errua dela esaten dute. Hori ez da egia. Gezuraren erabilera da hori". Horregatik, proposatzen dute "beste gastu bat bezala, pentsioak eta Gizarte Segurantzaren Estatuko aurrekontuetan" sartzea, "armada, errege-familia edo beste asko bezala".

Hori lortzeko mobilizazio puntualetatik harago, aldarrikapenak eskuratzeko "aukerak izateko, mobilizazioa sozializatzea" deitu du. Hau da, astelehen eguerdiro Altsasuko udaletxe parean egiten den manifestazioan parte hartzea animatu du jendea.

Genero ikuspegia

Azken 20 hilabeteetan ezagunak egin dira "miseriazko pentsio publikoen aurrean" pentsiodunek egindako kontzentrazioak. He-dabideetan ikusgarri izan dira zenbaitetan. Ez dena hain ezaguna, pentsioen aldeko mugimendu hori abiarazi zuena "emakume talde ausart handi bat" izan zela. 2018an eta 2019an haien egoeran "hobekuntza txiki batzuk" lortu zituzten, "baina oraindik gutxieneko pentsio duina bermatua lortzeko asko falta zaigu".

Emakumezkoen "etxeko lanak" Barne Produktu Gordinareneko % 51 dela esaten dute adituek. Familia aurrera ateratzeko egindako lan hori kotizatzen ez denez, pentsio eskasak dituzte emakumezkoek. Gauza bera gertatzen zaie azpi-enpleguetan, zaintza lanetan eta bestelakotan ari direnei. 800 eurora iristen ez den pentsioa edo 400 euroko laguntzako pentsioa. Emakumezkoen pentsioak gizonenak baino %37,5 txikiagoak dira.

Gizarte patriarkatuaren dauden genero desberdintasunen isla eta ondorio. XX. mendeko 70eko hamarkadan Dote Legea zena indarrean zegoen bitartean emakumezko askok eta askok lanpostua utzi behar izan zuten. Altsasuko mugimendu feministako kideek gaztigatu dutenez, "gaur egun emakume pentsiodunok soldata eta kotizazio baxuagoak edukitakoak gara; aldi baterako kontratuak izan ditugu, denbora laburrekoak, gutxiesten diren lanpostuetan, ikusezinak diren zaintza lanpostu gehienetan (neurri handi batean emakume migratzaileek betetzen dituzten lanpostuetan); azpi-eko-



nomia-pean; beirazko sabaia ezin apurturik; familia zaintzak dirrela eta lanaldi murrizketan; menpekotasun pean daudenak laguntzeko eszedentzia hartu beharrean aurkitzen direnak... Laburbilduz, gure kotizazioetan ondorio kaltegarria izan duten lanetan ibiliak gara". Horregatik, 1.080 euroko pentsioa aldarrikatu dute, "berezi alargunendako eta oso gutxi edo kotizatu ez duten emakumeendako".

Altsasuko mugimendu feministatik argitu dutenez, "emakumezkoek jasaten dugun diskriminazioa ez da naturaren ondorioa edo gure ahalmen mailaren emaitza, eredu patriarkal baten ondorioa baizik. Bidegabekeria horrek emakumezkoak bizitzaren piramidearen oinarriean kokatzen ditu eta ezegonkortasunaren besoetan uzten du". Gaineratu dutenez, "gaur egun milaka emakume pentsiodun dago bere zahartzaroan ezin dena hilabete akaberrara iritsi, gizarte harremanik ez duena eta kulturaz gozatzeko eskubiderik ez duena". Emakumezko gazteen egoerei ere erreparatu diete: "lanpostu prekario eta miseriazko soldatekin, bizitza ezin antolaturik dabilta. Etorkizun goibela sumatzen da eta gure bizitza osoan du eragina". Lan adin muga 65 urtera bueltatzea eskatu dute, horrela emakumeendako lanpostu berriak sortuko lirakeelako. Azkenik, Altsasuko mugimendu feministak emakumezko guztiak

Pentsiodunen aldarrikapenak

- **Pentsio publiko duinak bermatzea.** "Merezi dugun duintasuna jaso nahi dugu".
- **Enplegu, soldata eta pentsioetan genero arrakala kendu.**
- **Botikien berrordainketa kendu.**
- **2011ko eta 2013ko pentsioen erreforma bertan behera utzi.** "Kopurua jaitsi, lan-bizitza luzatu eta pentsioak pribatizatzea bideratuta daude".
- **Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea.** "Europako Gizarte Kartan jasoa, eta dagoeneko zaharkituta".
- **Lanbidearteko Gutxieneko Soldata 1.200 eurokoa izatea.** "Soldata prekarioa, pentsio prekarioa. Hori ere Europako Gizarte Kartan jasoa dago".
- **Aurre-erretiroa derrigortu denean, 40 urteko kotizazioarekin aurre-erretiroak ez zigortzea.**
- **Pentsioen balio handitzea automatikoa izan dadila.** "Oinarria, gutxienez Kontsumo Prezioen Indizea izatea".
- **Soldata eta enplegu duinak, langileen baldintzak hobetzeko.** "Eta, bide batez, Gizarte Segurantzako Kutzaren diru-sarrerak handitzeko".
- **Familia eta etxeko zainketa lanak, sozialki eta ekonomikoki aintzat hartzea.**
- **Betidantik emakumezkoek egindako ordaindu gabeko lanari buruzko eztabaida egitea.**
- **Alarguntza-pentsioen balioa kotizatzailearen ezkontideak kobratutakoaren % 100 izatea, adin mugarik gabe.**



Astelehenero elkartzen dira Altsasuko kaleetan pentsiodunak.

Pentsio publiko duinen gaia udaletan aztertuko da

"Gure aldarrikapenendako aurrekontu partidak sortzea, legez blindatzea, etorkizunerako bermaturik gelditzeko"

Alfredo Alvaro Igoa SAKANANA

Sakanako Pentsiodunen, Jubilatuen eta Adinduen Koordinakundeak Sakanako udal guztietan pentsio duinen aldeko mozioak aurkeztu dituzte. Euren iritziz, "bidezko" eskakizuna da, "eta eskaera hori betetzea oinarriko konpromisoa izan behar du litzateke zuzena eta demokratikoa den edozein gizartearen dako. Horregatik, koordinakundeak udalei euren eskaerak bere egiteko eskatu die. Lehenik, "pentsio publikoen banaketa ereduaren sistema defendatzea, baita pentsio publiko duin, bidezko eta nahikoak ere".

Aldi berean, "diru sarreraren nahikotasuna bermatzeko, Europako Gizarte Gutunak ezarritako eskakizunak betetzea: 1.200 euroko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta pentsioen balioa automatikoki eta behin betikoz handitzea, beti ere, bizi-kostuaren handitzearen arabera". Lan erreformak eta 2011ko eta 2013ko pentsioen erreformen alderdi atzerakoiak bertan behera uztea, prekarietatea handitzea ekarri baitute. Eta, azkenik, genero-arrakalarekin bukatzea, soldata, pentsio, lan-baldintza eta enpleguari dagokionez".

Horrekin batera, koordinakundeak nahi du "mendekotasun-egoeran dauden pertsonen hura estaltzeko duten eskubidea legez bermatzea, horretarako aurrekontu publikoekin ordaindutako zerbitzu unibertsal eta publikoen sarea baliatuz". Aldi berean, es-

katu dute "adinduen eta jubilatuen bizi-baldintzak hobetzeko plan zehatz bat egitea, baita zerbitzu eta prestazioei buruzko informazio eta aholkularitza-zerbitzua ere".

Aitortza

Koordinakundeak kideek mozioan aitortu dutenez, "nekatuta gaude betetzen ez diren betiko promesak entzuteaz, eta haiek ekintzak bihurtzea eskatzen dugu. Gure aldarrikapenak behingoa erantzutea nahi dugu. Beharrezkoa da aurrekontu-partidak sortzea eta horiek legez blindatzea, gure eta datozen belaunaldien dako bermaturik gera daitezen".

Bestetik, gaineratu dutenez, "hauteskundeak egin dira eta gure mobilizazioei esker lortutako aurrerapenak finkatu gabe daude oraindik". Eta gaineratu dute, "lanaren ezegonkortasuna eta pentsioen jaitsiera dakarten erreformek indarrean segitzen dute, eta pentsiodunok horien ondorioak pairatzen ditugu". Koordinakundeak mozioaren bidez ziurtatu dutenez, "gure bizi-baldintzek nabarmen egin dute okerrera, eta gero eta gehiago dira bizi-baldintza kaskarrak dituzten adinekoak".

ASTELEHENEAN, 12:00ETAN, ALTSASUN. ASTEARTEAN, 11:00ETAN, IRURTZUNEN BILKURA



ASTEKOA

YOLI OLASAGARRE

Goitik buru, lagunok!!!

Aspaldi sortu ziren Bierrik Elkartea, eta horren baitan Guaixe eta Beleixe. Garai hartan Euskara Elkarte eta Tokiko Komunikabide ugari sortu ziren euskararen zabalkunde eta normalizazioan hutsunea bete nahian. Komunikabide horien zeregina euskal hiztunok gertuko informazioa euskaraz jasotzeko modua eskaintzea da, eta bidenabar, hiztunok (asko urte haietan gaztelaniaz eskolatuak) euskaraz irakurtzeko eta entzuteko erraztasuna hartzea. Horren kontura, garai hartan, Sakanan herriko hizkeran edo batuan idatzi behar ote zen erabakiak hautsak harrotu zituen eta erabakirik zentzuzkoena hartu zela iruditzen zait.

Bestalde, Euskara elkarten zeregina ere bazen euskal hiztunak batzea, euskaldunon arnaguneak sortzea eta jarrerak aktibatzea. Hortxe ditugu, Altsasuko Kima, Irurtzango Aizpea, Etxarriko Ziriketzen... edota gainerako herri gehienetan Udaletako Euskara Batzordeen inguruan sortutako taldeak. Talde horien ibilbidea ez da makala izan eta txalotzeko moduko ekimenak bultzatu dituzte. Hala ere, muinera iristea ez dela lortu

NOLA LORTU HIZTUNAK BATZEA ETA DENOK SINTONIA BEREAN EGOTEA

esanan nuke, alegia, nola lortu hiztunak batzea eta denok sintonia berean egotea. Gizarte zientzien ikuspegitik prozesu zaila da hori, azken finean, norberaren gertuko komunitatean (familia, lagunak, aldamenak, herrikideak...) eta norberaren jarrearen gainean eragitea eskatzen duelako. Geroz, badugu erronka, nola eta nondik egingen dugun bidea zehazten puntu batetik bestera iristeko.

Goitik buru, lagunok!!!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne).
GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Haurren Giza Eskubideak eta Zurrumurruak

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

1924ko Genevako Adierazpenaren arabera, Haurren eskubideak dekalogo honetan biltzen dira:

1. Berdintasunerako eskubidea, arraza, erlijioa edo nazionalitate kontuan hartu gabe.
2. Babes berezia jasotzeko eskubidea, fisikoki, mentalki eta sozialki osasuntsu eta libre haz daitezten.
3. Izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea.
4. Elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta egokia izateko eskubidea.
5. Urritu fisiko edo psikikoek hezkuntza eta arreta bereziak jasotzeko eskubidea.
6. Familiak eta gizarteak maitatua eta ulertua izateko eskubidea.

7. Doako hezkuntza baterako eskubidea. Ongi pasatzeko eta jolasteko eskubidea.

8. Arrisku-egoeratan arreta eta laguntza jasotzen lehenak izateko eskubidea.

9. Abandonatua eta lanean esplotatua ez izateko eskubidea.

10. Munduko pertsona guztien arteko elkartasuna, adiskidetasuna eta justizia sustatzen duen hezkuntza jasotzeko eskubidea.

Dekalogo irakurrita, nor ager daiteke kontra? Oinarrizko eta logikazko dekalogo dirudi bere horretan. Gizakiaren paradoxek eta kontraesanek, ordea, zurrumurruek inguruko hausnarketara garamatza ezinbestean. Bai, haurrei berez dagozkien giza eskubideekin talka egiten

duen zurrumurru baztertzailak: "ikasle etorkinek hezkuntza maila jaisten dute", "zerbitzuak haientzako dira", "ez dira gurera egokitzen"... Ohartzen al gara haur bakar baten (berdin da jatorria) eskubidea urratzen denean, haur guztien unibertsaltasuna kolokan jartzen dela? Haurren jatorria edozein delarik?

Zergatik jartzen dugu halako indarra jatorrian? Eskubideak unibertsalak badira... GUZTIONTZAK dira! Prest al gaude haurren eskubideak gureganatu eta haien defentsa sutsuan aritzeko? Galde diezaiozun gure buruari: lehen eta bigarren mailako haurrak, gizakiak nahi ditugu gurean? Ala guztiontzat eskubideak bermatzen dituen gizarte?



OBJEKTIBOTIK



Beñat Agirre @supro · 13 h
#Klik #Berriain #Sakana



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardui
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Miren Alonso Razkin

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Hauteskundeak azaroaren 10ean eta 17an bi herritan

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan Sakanako 15 udal eta 13 berri ziren. Irañetan eta Iturmendin ez zen hautagaitzarik aurkeztu eta, beraz, 2015eko hauteskundeetan aukeratutako udalek segitzen dute lanean.

Ministro Kontseiluak berriro ez ziren udalak osatzeko hauteskunde deialdi berria azaroaren 17rako egin du. Beraz, irintarrek eta iturmendiarrek zortzi egunetan bitan izanen dituzte hitzorduak hautetsontziekin. Izan ere, udalena osatu aurretik, azaroaren 10ean Espainiako hauteskundeak izanen dira ere.

Azaroan bi hauteskunde deialdi egoteak esan nahi du hauteskunde mahaiak osatzeko bi zoketa eginen direla ere. Udalerako hautagaiak aurkeztu gero aurtengo laugarren hauteskundeak izanen dira Irañetan eta Iturmendin: apirilaren 28an Espainiako hauteskundeak eta maiatzaren 26an Europako eta Nafarroako Parlamentuak eta udalak berritzeko hauteskundeak.

Turismo sektorearendako ikastaroa

Cederna Garalurrek jendaurreko arreta: bezeroa nola zaindu, salmenta on bat ahaztu gabe izena duen lantegia antolatu du. Utzугanen, Sakanako Garapen Zentroan, izanen da lastailaren 8an eta 10ean, 10:00etatik 13:00etara. Bi saioetan, sei orduko iraupena du ikastaroak eta dohainik da. Izena emateko: 619 328 264 edo sakana.admon@cederna.es.



Mankomunitateko eta udaleko ordezkariak izan ziren aurkezpenean. Jarain hitzak askatu esan nahi du Burundako euskalkian.

Jarain, indarkeria matxistatik askatzeko

Ibarreko 15 udalek www.jarain.app web gunea eta telefono aplikazioa sortu dute. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako tresna sakandarren eskura jarri dute eta hura deskargatzera eta erabiltzera gonbidatu dute

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuek elkarlanean sortu dute Jarain web gunea eta telefono mugikorretarako aplikazioa. Mank-eko lehendakari David Oroz Alonsok azaldu zuenez, "egitasmoa Indarkeria matxistari aurre egiteko Estatuko Itunetik jasotako ekarpen ekonomikoaren baitan egin da". Orozek azaldu zuenez, tresnak bi helburu ditu. "Aurrena, indarkeria sufritu duten edo sufritzen ari diren emakumeendako informazio, aholkularitza eta baliabideak eskuragarri jartzea; informazio hori emakume guztiei iristen zaiela bermatuz. Eta, atzena,

indarkeria matxistaren kontrako prebentzio eta sentsibilizazioa".

Altsasuko alkate Javier Ollo Martinezek aitortu zuen udalak indarkeria matxistaren kontra "koordinatuki lan egiteko garaia" dela. "Prebentzioan eragina handiagoa izanen delako. Baina emakumezkoen arretan ari diren zerbitzu guztien koordinazioa egiten hasi nahi dugu aurki. Gure ahalmenen neurrian, arreta eraginkorragoa lortu behar dugu eta, aldi berean, hura eskatzen duten emakumezkoendako erraza izan dadila".

Orozek argitu duenez, "indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazio eta koordinazio arloan,

erantzuna emateko asmoz sortu eta sustatu ditugu web gunea eta aplikazioa". Hala ere, gaztigatu zuenez, "Sakanako jendartearen feedback-a eta parte hartzea ezinbestekoa izango da aplikazio hau etengabe eguneratzen eta egokitzen joan dadin". Bi zerbitzuetako ordezkariak jakinarazi dutenez, euskarri berrian interesa duten taldeendako aurkezpen publiko edo lantegiak antolatuko dituztela.

Ezaugarriak

www.jarain.app edo telefonoendako aplikazio berrian sartzen direnek informazioa euskaraz edo gaztelaniaz jasotzeko aukera izanen dute. Biak ere irisgarriak

dira, hau da, irakurterraza izateko letra tamaina handitzeko aukera ematen du aplikazioak. Orozek azaldu zuenez, "tresna erraza eta oso intuitiboa da". Zazpi atal ditu Jarain.app-ek. Aurrena, zertaz ari gara atala da eta han Nafarroako legeak zehazten duen Emakumeen aurkako indarkeriaren definizioa hartuta, legeak barne hartzen dituen indarkeria motak zerrendatu dira. Hurrenak Sakanan eta Nafarroan dauden baliabideak zerrendatzen ditu, bai egoera larrian erabili beharrekoak, baita egoera larria ez denean erabili daitezkeenak.

Zure ardura ere bada atala da hirugarrena. Horretan, alde batetik, indarkeria matxista sufritzen ari den norbait ezagutuz gero egin beharreko aholkuak ematen dira. Eta, bestetik, berriro gerta ez dadin Sakanako jendarteak prebentzioa eta sentsibilizazioan zeregin handia daukagula azaltzen da. Laugarren atala, gazteei bideratuta dago eta irakurtzeko hizkuntza erreza eta zuzena du. "Egunerokoa nahi ditugun harremanen inguruko mezuak, indarkeria sufritzen ari bada egin beharrekoak eta, azkenik, norbait ezagutuz gero zer egin azaltzen du".

Tresna berriaren beste atal bat Ba al zenekien izena du eta han ohiko galderak zerrendatu dituzte. Batetik galdera praktikoak: indarkeriaren biktima nola frogatzea, baliabideak erabiltzeko salaketa jartzea beharrezkoa den, babes agindua nola eta non eskatu. Eta, bestetik, Sakanako zenbait datu esanguratsu jaso dituzte. Atzeneko atala agendari eskainitakoa da: "Sakanan gaiarekin lotura duten hitzordu eta albisteen berri eman gogoz da".

GOIZERO 10:00-12:00

EGUN ON SAKANA

08:30 Nafarroako albisteak
Euskalerrria irratia eskutik

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneako albisteak

10:45 Hizketan

11:20 Sarea: Aralar eta
Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

ZURE NEGOZIOAREN
ERAKUSLEIHOA,
BELEIXE IRRATIA. JARRI
HARREMANETAN GUREKIN!

948 567 074

irratia@beleixe.eus



Sakanako Mankomunitateko presidentea aukeratzeko botoa ematen.

Oroz Mank-eko lehendakari aukeratu dute berriro

Mank-en hamargarren legegintzaldian EH Bilduk 20 batzarkide ditu, Geroa Baik 6 eta 3 independente daude

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko lehendakari aukeratu zuten David Oroz Alonso joan den ostegunean. 29 batzarkideetatik 23 agertu ziren bilerara. Bozkatzerakoan 19k Orozen hautagaitzari baiezkota eman zioten eta beste lauk abstentziora jo zuten. Beraz, Sakanako Mankomunitatearen hamargarren legegintzaldian Oroz izanen da ibarreko erakundeko burua.

Orozekin hiru dira Sakanako Mankomunitateko presidentea karguan errepikatu dutenak: Aitor Karasatorre Muguruzak

eta Migel Angel Zubiria Galarzak. Oroz, Karasatorreren moduan, jarraian egon da karguan; Zubiria, berriz, bi alditan.

Bestetik, ibarreko erakundeko batzarkide dira Sakanako 15 alkateetatik 13. Ez dira Irañetakoa eta Ergoienakoa. Gainera, batzarraren behin behinean ordezkaria daude Irañeta eta Iturmendia, bi herrietan ez zelako udal hauteskunderik egin udaberrian eta deialdi berria azaroaren 17rako dute. Azkenik, aurreko legegintzalditik errepikatzen duten batzarkideak dozena bat dira.



David Oroz Alonso Sakanako Mankomunitateko lehendakaria.

"Gure erabakiz tresna indartsua dugu"

DAVID OROZ ALONSO SAKANAKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA

Ibarreko erakundearen batzarra pasa den ostegunean eratu zen eta haren buru izateko berraukeratu zuten Urdiaingo alkatea

SAKANA

Sekula baina aniztasun politiko txikien duen batzordea du legegintzaldi honetan Sakanako Mankomunitateak. Zer iritzi horren inguruan?

EH Bildu, Geroa Bai eta independenteak gaude batzarrean. Hori izan zen hauteskunderen emaitza. Udal bakoitzak bere ordezkariak hautatzen ditu eta horrela suertatu da. Hor daude ordezkaria herritarrek botoa ematen dieten siglak. Ez gehiago, ez gutxiago. Aurrekoarekin konparatuta kolore pixka bat galtzen da, egia da. Hori da herritarrek erabaki dutena.

Mank-en lan jardunaren iparra zein izanen da?

Bi urte daramatzat lehendakari, orain beste laurako aukeratu naute. Bi urtetan ematen ditu gauzak perspektiba pixka batekin ikusteko. Batez ere daukaguna baloratzeko. Eta batzuetan fokua urrunduz behar duzu benetan daukagunaz ohartzeko. Duela ia 35 urte sortu zen mankomunitate

tea. Behar baten, hondakinen inguruan sortu zen. Niri kontatu didatenaren arabera, hasierak ez ziren batere errazak izan. Nik uste horrek bere garaian erakutsiko zuela gauzak egiteko modu bat nahi zela, edo asmoa zegoela. Duela sei hilabete sortu da azkeneko zerbitzu berria Sakanako herrien artean. 35 urtetako ibilbidea oso luzea, oso emankorra eta gauzak egiteko modu bat erakusten du. 35 urte hauetan hondakinak, ura, euskara, kirolak, etxebizitzak zaharberritzeko bulegoa, garapen agentzia, kulturartekotasuna eta berdintasuna dauzkagu. 15 udalerrik erabakitzea zerbitzu horiek guztiak komunean jartzea eta partekatutako ibilbidea gauza horien

"MANK-EK OSO IBILBIDE EMANKORRA DU, GAUZAK EGITEKO MODU BAT ERAKUSTEN DU"

guztien inguruan ez da oso ohikoa. Jendeak kanpotik hori ikusten duenean aintzat hartzen du. Askotan nik entzun izan dut, eta askotan kanpotik esan behar digute horretaz ohartarazteko, miresten dute hemen daukaguna. Guri tokatzen zaigu hori zaintzea, hori elikatzen segitzea eta estimatzea.

Mank-en plan estrategikoa egitekoak zineten. Zertan da?

Martxan dago. Barruko momentuan gaude. Plan estrategikoa egiteko garaian datuen bilketa, egoeraren azterketa, barruko azterketa egin behar da. Baina plan estrategikoa ez du barrurako gauza bat izan nahi. Nahi duguna da konpartitutako bide-orri bat markatzea datozen urteetarako. Nik irudikatzen dudana ez da bakarrik mankomunitaterako plan estrategikoa. Horretan, beste gauzen artean, erantzun beharko diogu zer ibar nahi dugun galderari. Ibarra egiten mankomunitateak oso paper garrantzitsua jokatu izan

Orain arteko lehendakariak

- **1987-1991** Jose Manuel Etxeberria Solis.
- **1991-1995** Manuel Ijurreta Etxarri.
- **1995-1999** Migel Angel Zubiria Galartza.
- **1999-2003** Jose Manuel Leitza Razkin.
- **2003-2007** Gorka Ovejero Ganboa.
- **2007-2011** Migel Angel Zubiria Galartza.
- **2011-2015** Aitor Karasatorre Muguruzak.
- **2015-2017** Aitor Karasatorre Muguruzak.
- **2017-2019** David Oroz Alonso.

Batzarraren osaketa

Ibarreko udalerririk guztiak daude ordezkaria Mank-en. Populazioaren arabera da herriko batzarrean duten ordezkaria. Beraz, batzarkideen kopurua herrien populazioaren arabera aldatzen da. Legegintzaldi honetan aurreko legegintzaldiko 29 ordezkariak mantentzen dira.

Biztanleak Ordezkariak

• > 1000	1
• 1.000-2.000	2
• 2.000-3.000	3
• 7.000-8.000	8

du azken urteetan. Eta segituko du. Horregatik, salto hori: zer mankomunitatea baino gehiago zer ibar nahi dugun da erantzun behar duguna. Hori modu konpartituan egin behar dugu: mankomunitatean lan egiten dugunok, baina udalek jokatu behar dute ezinbesteko papera. Azken finean udalek erabaki zutelako bere garaian mankomunitatea sortzea. Sakanako eragileak eta Sakanako herritarrek ere parte hartu beharko dute, nahi badugu argazkia osatua eta koloretsua ateratzea.

Tokiko Maparen berrantolaketak Sakana Eskualde bihurtzeko aukera ematen du. Zein asmo duzue?

Ez da gure erabakiz martxan jarriko den kontu bat izanen. Nafarroako Gobernuaren borondate politikoaren arabera izanen da. Sakana, berez, jada existitzen da. Martxan dagoen ibar edo eskualdea da. Tokiko Maparekin, edo gabe. Ez dago zalantzarik Tokiko Maparen berrantolaketa-ekin ibarrari Eskualde izaera emanen litzaiokeela. Eta lagunduko liguke, nik uste. Baina bagaude. Hori ere bada zerbaiten eragina. Lehen aipatutakoaren eragina. Sakanak krisia gordinki sufritu zuen. Sakana ez zen gelditu eta Iruñetik, Madrildik edo Bruselatik ekartzen zizkiguten enpresak edo diruak-edo. Sakanan erabaki zen garapen agentzia martxan jartzea, adibidez. Sakanan bizi eta lan leloaren inguruan bildu zen jendea, eta horri erantzun bat eman zitzaion. Honekin nik parekotasun bat egiten nuke: Sakanak erabaki zuen aspaldi Sakana existitzen zela eta artikulatu behar zela. Iruñetik horretan lagungarri diren erabakiak hartzen badira, perfektu.

Euskara Zerbitzuan, helburua?

Aspaldi martxan jarrita dago. Aurrekontu dezentea du. Eta lan ikaragarria egiten ari da euskararen inguruan ekimen asko martxan ditu. Ez dut irudikatzen aldaketa handiegirik.

Urdalurko ur sarea Irurtzuneran luzatzeko asmoa aspaldikoa da.

Datorren urterako aurreikusten dugu Satrustegi eta Etxarren

arteko goi-hornidurako hoditeria jartzea. Irurtzunerako bidean beste pausotxo bat emanen dugu.

Ur zerbitzuan zein asmo gehiago legegintzaldi berrirako?

Alde handia dago biltegietatik ateratzen den uraren eta fakturatzen denaren artean. Agian garrantzia handirik eman ez zaion gauza bat da, ura badagoe-lako, soberan. Edo pentsamendu horrekin. Baina nik uste dut ardurazko gauza bat dela. Saneamendu eta hornidura sareak berritzean, nabaria da hobekuntza. Sarea zaharra dago eta pitteka-pitteka berritzen joan behar da. Baina hor foku inportante bat jarri behar dugu.

Hondakin zerbitzuan hainbat lan aurrekusi ziren aurreko legegintzaldian: konpost planta hondakindegian, garbiguneak Altsasun eta Ziordian, transferentzia kai gunea ixtea... Zertan dira?

Hondakindegiko obra, duela hamar urte bueltaka ibili dena, behingoagatik esan dezakegu bukatuta dagoela. Zeld berriari isurtzen ari gara urte hasieratik. Hori kasik ospatzeko moduko kontua izan da. Transferentzia gunean ere obra bukatuta dago. Garbiguneena esleitzeko momentuan gaude. Eta konpost plantarekin gauza bera. Heldu den urterako aurreikusten diren obrak dira.

Sakanan hondakin birziklatzea handitzeko Irurtzunen eta Altsasun eragin behar da. Zein asmo? Gai nontzeko herrietarako?

Egin dugunaren balioa aitortzea tokatzen zaigu: Nafarroako Hondakin Legeak 2020rako jarri zituen helburuak betetzen dituen mankomunitate bakarra Sakana da momentu honetan. Erraz, gainera. Beste mankomunitateak oso urrutiti daude legea eskatzen duena betetzetik. Hori erabaki batzuegatik izan da ere. Eta,

"SAKANA, BEREZ, JADA EXISTITZEN DA. MARTXAN DAGO. TOKIKO MAPAREKIN EDO GABE"



batez ere, herritarren inplikazioarengatik. Herritar asko gauzak oso ongi egiten ari dira Sakanan. Hori aitortu behar da. Egia da herriak eta herriak daudela. Irurtzunek eta Altsasuk maila baxuagoak dituzte. Altsasun bosgarren edukiontzia buelta bat eman behar zaio. Datuak hobetu ditugu. Baina ez nahi adina. Ez gaude legeak eskatzen duen maila horretan. Irurtzunen beste modu batez egin zen, auto eta auzo-konpostagailuen bidez. Horrek ere emaitza oso onak eman ditu, baina hobetzen segitu behar dugu.

Hasierako auzo-konpostagailu batzuen egoera ez da hobereena.

Esanen nuke administrazio publikoendako gairik konplikatu netako bat dela hondakinena, kudeatzeko zailena. Hor gauza asko nahasten dira: inbertsioak egiteko beharra, baina egoera ekonomikoak batzuetan ez ditu laguntzen... Bai, badakigu arazoak ditugula. Saiatzen gara egunerokoa ahalik eta hobekien kudeatzen. Eta horretan gaude. Egia da mankomunitatea aipatzen dugunean, jende gehienari galdetzen badiogu zer den mankomunitatea mundu guztiak hondakinak esanen dizula. Baina beste dena ez da horren beste

ikusten. Askoz ere atseginagoa da, "saltzeko" oso produktu polita daukagu.

Kirol Zerbitzuekin, zein asmo?

Onespen erabatekoa dauka erabiltzaileen artean. Kirol-orientazio zerbitzua martxan jartzeko asmoa dugu.

Anitzartean kultur artekotasan zerbitzuen helburuak dira?

Erabat egonkortuta, ibilbide polita egiten ari da eta ekimen ederrak aurrera ateratzen dituen. Betiko sakandarrak eta sakandar berriak, ni neu barne, biltzen dituen. Itzulpen zerbitzua eskaintzen duena du ere.

Sortu den azken zerbitzua Berdintasuna da, zein asmo?

Tamalez, gero eta beharrezkoagoa. Edo zorionez ohartu gara horren beharraz. Udan agerian jarri da. Komunikazio-kanpainaekin hemen gaude esan du. Hemendik aurrera Berdintasun Plana, Jarain aplikazioa...


Sakanako Garapen Agentziako buru ere bazara. Zer da buruan duzuen?

"GARAPEN AGENTZIA TRESNA OSO INDARTSUA, OSO BALIAGARRIA IZATEN ARI DA"

Garapen agentziak kasik dena hartzen du: industria, energia, turismoa, elikadura, komertzioa, hezkuntza, digitalizazioa... Erabat toki dinamikoa da. Ezagutu bitartean sumatzen duzu. Baina benetan barrutik ezagutzen duzu eta, benetan, ikaragarria da. Tresna oso indartsua, oso baliagarria izaten ari dena. Kontaktua daukan jendeak, bere atea jotzen duenak edo askotan haiek dira ateak jotzera joaten direnak gauzak proposatzera. Nik uste dut oso nota altua duela. Asteartean Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Itziar Gomez Lopezekin bilduta egon ginen eta esan zigun: "susmoa neukan nire lehenbiziko horrelako bilera Sakanan izan behar nuela. Entzundakoaren arabera, garapen agentziak plus bat dauka Nafarroako beste toki batzuetan aurki dezakezunarekin". Bilera bukatu ondoren esan zigun: "benetan hau da igual beste tokietan egin beharko litzatekeen zerbait, adibidea". Adibide, Sakanak erabaki zuelako martxan jartzea, eta ezinbesteko tresna dugu egun.

Garapen agentziaren Plan Estrategikoa 2014-2020 aldirako da. Segida izanen du?


Izan beharko luke. Joan den urtean geldialditxo bat egin genuen, bidaiaren erdian edo gutxi gorabehera, jakiteko non ginen, zer eskari berri edo zer aukera berri zeuden. Adibidez: Sakanako Plan Estrategikoa 2014an martxan jarri zenean digitalizazioa, nik uste terminoa asmatu berri zela. Egun enpresek duten behar handienetako bat da. Dinabide Irurtzunen martxan jarriko da berehala. Ikusteko zer dinamismo duen garapen agentziak, zer beharrezkoa den. Joan den urtean hausnartzera gelditu ginenean 2020 + esaten genuen. Plus hori luzea izanen dela pentsatzen dut. **Mank-en osasuna ona da, ezta?** Zalantzarik gabe. Tresna indartsua dugu. Gure erabakiz, sakan-darron erabakiz. Balioa aitortu eta bere potentzial osoa baliatu, hori tokatzen zaigu. Ez zaigu iruditzen baina, benetan, adibide gara. + www.guaixe.eus



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com




Etxe pasiboetarako egokia

5 9000


Isolamendu nukleo indartsua

IKD



Beirak lehorrean jarrita

STV



Aperteko azala koloreztatua

Aperteko azala

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

UHARTE ARAKILGO SAN MIGELAK



SAN MIGELEKIN, FESTA!

Gaur arratsaldean piztuko du udaleko kide batek festei hasiera emanen dien etxajua. Ospakizunean elkartasunari tartea eginen diote eta udan Tafallaldeko uholdeekin kaltetutakoan aldeko bingoa antolatuko dute. Aurretik ere Tafallaldeari elkartasuna azaltzeko ekimenak eginak dituzte Uharteko Arakilen. Hilaren bigarren asteburuan areto futboleko txapelketa jokatzen eta han pintxoak eta beste saldu ziren diru puska eder bat lortuz. Gaurkoarekin asmo bera dute. Gainera, arratsaldean, herriko familia bati elkartasuna adierazteko herri-argazki bat egiteko asmoa ere badute. Larunbateko izarra paella lehiaketa izanen da, mahaiaren bueltan 240 uhartear bilduko dituen.

OSTIRALA 27

18:00 Festei hasiera emango dien suziria. Uharteko Arakilgo konpartsak girotuko du. Jarraian, auzatea plazan.

18:30 Tafallarekin elkartasunez bingoa, herriko plazan.

20:00 Play back lehiaketa (izena

emateko, 19:30ean, plazan).

22:00 Zezensuskoa.

00:30-04:00 Dantzaldia Gozo gozo taldearekin.

LARUNBATA 28

10:00 Dianak gaiteroen eskutik.

12:00 Erraldoi eta buruhandiekin kalejira.

13:00 Auzatea.

14:30 Koadrilen arteko IX. Paella lehiaketa.

18:30 Sustrai Egunak antolatutako eta Fanfarreak girotutako kalejira.

20:00 Auzatea.

20:00-21:15 Dantzaldia Bocabeats taldearekin.

22:00 Zezensuskoa.

00:30-04:00 Dantzaldia Irtzar taldearekin.

IGANDEA 29

12:00-13:30 Haurrendako puzgarri eta jokoak, pilotalekuan.

12:00 Meza, elizak antolatuta.

12:45 Erraldoi eta buruhandiekin kalejira.

13:00 Auzatea.

14:00 Jubilatuen bazkaria. Bazkalostea Andoni Gastaminzarekin.

16:00-18:30 Haurrendako puzgarri eta jokoak, pilotalekuan.

19:00 Txokolate-jana.

19:00 Munduko II. Biri-biri txapelketa bikoteka.

20:00 Auzatea.

20:00-22:30 Dantzaldia Tirri & Terri dj-ekin.

22:00 Zezensuskoa.

Egun handia Aralarko santutegian igandean, San Migel

Aralarko San Migelek duen erakarpenean gaitasuna, atzera ere, agerian geldituko da igandean. Makina bat fededunek eta santutegiarekin lotura duten pertsonak bat egiten dute San Migel egunean mendi gaineko eraikinean. Dagoeneko, jendearen aparteko joan-etorria azken egunetan nabaria da. Izan ere, San Migelen bederatziruarekin

egunero 18:00etan meza baitago. Bihar, San Migel bezpera, 12:00etan meza nagusia izanen da eta 18:00etan bederatziruarekin elizkizuna.

San Migel egunarekin, igandean, jendetza joan da santutegira, horregatik, sei elizkizun izanen dira: 09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:30ean meza nagusia, 17:00etan eta 18:00etan. Meza bakoitzaren akaberan, ohi bezala, sinestunek Aralarko aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen dute.

OLATZAGUTIKO SAN MIGELAK

MUSIKAREN DOINURA SEGITZEN DU ETXAJUA

Santa Ana festei La Cigarra txar-rangak hasiera eman bazien, sanmigeletan Udala Musika Eskola izanen da festen hasierako etxajua piztuko duena

Olatzagutiko Udala Musika Eskolan klaseak hilaren 16an hasi zituzten. Eta gaur egiteko berri bat izanen dute: soinu eztanda bat eragin, festei hasiera emateko. Bost irakasle dira musika eskolan ari direnak eta zuzendaria Salvador Madariaga Almandotz da. Berak azaldu digunez, "azken bi urtetan eskolako ikasle kopuruak gora egin du. Duela bi urte 20 ziren eta gaur egun, berriz, 31". Akordeoia, trikitixa, pianoa, saxofoia eta gitarra ikasketekin batera, musika hizkuntza, abesbatza eta musika eta mugimendua (5 eta 7 urte artekoendako) erakusten dute irakasleen etxebizitzak hartu zituen eraikinean.

Musika eskolak etxajua piztu eta gero ez da musikaririk, kirolirik, dantzarik edota jatekoririk faltako. Herri mugimenduak antolatutako herri bazkaria izanen da ere eta han lortutako dirua 11/13 sumarioko gastuak ordaintzeko bideratuko dute.

Domeka goizean 18 artisau postu izanen dira ikusgai, baita Munduko Arrozak ezagutzeko aukera ere.

OSTIRALA 27

19:00 Txupinazoa, kultur etxetik. Erraldoiak eta buruhandiak.

19:30-22:00 Dantzaldia Gauargi taldearekin, San Migel plazan.

20:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

20:00 Kakahuete, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan, San Migel plazan.

22:00 Zezensuskoa.

LARUNBATA 28

09:00 Dianak, Olatzagutiko eta Ziordiko koruekin.

10:30 XIII. Olatzagutia-Urba mendi lasterketa. Irteera eta helmuga San Migel plazan. Horretaz aparte haur lasterketak: motorrekin 0-4 urte (nork berea eraman); oinezko lasterketak (4-7 urte, 7-10 urte eta 10-13 urte). Antolatzailea: Sutegi Taldea. Laguntzailea: Olatziko Udala.

11:00-13:30 Jolas parkea, Sarasate plazan. (Euriarekin frontoian).

13:30 XIII. Olatzagutia-Urba

mendi lasterketako sari banaketa.

14:30 Herri-bazkaria, San Migel plazan. (Euriarekin Erburua kiroldegian)

18:00 Apar festa, areto futboleko pistan. (Euriarekin jolas parkea frontoian)

20:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

20:00 Kakahuete, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan, San Migel plazan.

20:00-22:00 Dantzaldia Oharkabe taldearekin, San Migel plazan.

22:00 Zezensuskoa.

00:00-03:00 Dantzaldia Oharkabe taldearekin, San Migel plazan.

DOMEKA 29

11:00-14:30 Artisau azoka eta Munduko Arrozak, San Migel plazan. (Euriarekin Erburuan)

11:00-13:00 Txutxu tren, irteera: Intsumisioaren plazatik.

12:00-14:00 Haurrendako txotxongilo sorkuntza tailerra.

11:00 Kalejira erraldoi eta buruhandiekin eta Altsasuko gaitariekin.

12:00 Frontenis txapelketaren finala frontoian. Antolatzailea: Sutegi Taldea. Laguntzailea: Olatziko Udala.

16:00-19:00 Txutxu tren, irteera: Intsumisioaren plazatik.

18:00 Etorrizuna dantza taldea, San Migel plazan. (Euriarekin frontoian).

19:00-21:00 Dantzaldia Orots taldearekin, San Migel plazan.

20:00 Kakahuete, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan, San Migel plazan.

21:00 Zezensuskoa.



UTZITAKOA

Ergoendarren topagunea

Ergoienako egunaren hirugarren edizioa hartu zuen Dorraok larunbatean. Goizeko atletismo probaren ondoren, 80 bat ergoendar elkartu ziren Ittur aldea frontoian egin zen herri bazkarian. Gazteak baino adinekoak izan ziren gehienak. Eta gustura asko egon

ziren garai bateko kontuak berritzen. Mahaitik jaso eta aldamenean dagoen izen bereko elkartera joan ziren han Modestorekin dantza egitera. Egun ederra pasa zuten denek. Ospakizunak hiru urte egin ditu eta ibarreko hiru herrietatik pasa da dagoeneko.



Batuta elkarteko Javi Bergarak galtzear zeuden jakiekin pintxo goxoak prestatu zituen.

Janaria ez da zaborra

Elikagai hondakinak murriztu eta prebenitzeko Nafarroako Gobernuak kanpaina du martxan. Alferrik galdutako elikagaien % 42ak etxeetan dauka jatorria. Kalkuluen arabera nafar bakoitzak, urtero, 75 kilo elikagai alferrik galtzen uzten dugu

SAKANA
Nafarroako Elikagaiak Alferrik Galtzearen Kontrako I. Astea ospatzen ari da irailaren 21etik eta 29ra. Hondakinak Prebenitzeko eta Zirkulu-Ekonomia Bulkatzeko Bulegoaren bidez sustatu du Nafarroako Gobernuak "Janaria ala zaborra? Zuk erabaki" kanpaina jarri du martxan. Eta herenegun kanpaina Altsasuraino iritsi zen eta Batuta Sakana elkarteko kideek elikagai soberakinekin prestatutako pintxoak banatu zituzten dohain: ogi zaharrarekin egindako torrijak fruta-marmeladarekin eta gazta, urdaiazpiko eta arrautza frijituak (Altsasuko festetako herri bazkarikoa, Ogi-tartekotekoa, Lacturale esnekiak, Lizarraga arrautzak eta Lacalle fruta-dendako fruta).

Hondakinak Prebenitzeko eta Zirkulu-Ekonomia Bulkatzeko

Bulegoko koordinatzailea Aintzane Perez Ezkurdiak azaldu digunez, "janari asko botatzen da eta hori arazo bat da. Horrek suposatzen baitu janari hori ekoizteko ura behar dela, argindarra, hainbat ondasun, CO2

isurketak daude... Botatzen den janaria kudeatzeko kristoren beharra dago, eta dirutza xahutu behar dugu". Perezek gaineratu duenez, janaria botatzea "arazo etiko bat da. Oso gaizki pasatzen ari den jendea dago.

Nafarroan 30.000 pertsona dira Elikagaien Bankura doana jatekoak hartzera. Eta, bestetik, arazo ekonomikoa da, dirua xahutzen ari gara".

Perezek argitu digunez elikagai xahuketaren ideia 2012an zabaldu zuen Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak, FAOk. Erakundeak jakinarazi zuen ekoiztutako janariaren % 30 eta 50 artean bota egiten dela. "Lurralde garatueta etxeetan botatzen da gehien. Garapenerako bidean daudenetan, berriz, ekoiztean eta garraiatzean". Nafarroako Hondakin 2017-2027 Planaren helburuen artean, 2027rako etxeko hondakin sorkuntza %12 murriztea eta elikagaiak alferrik galtzearen aurkako Plana idaztea dago.

Sakana

Mankomunitateko kudeatzaile Itziar Iribarren Rekartek gogorarazi du "hondakinik onena sortzen ez dena" dela. Janaria "ulertzen dugu ez dela hondakina, beste modu batean aprobeztatu daiteke. Horrela, ez dira hondakin bezala pertz marroira joan". Iribarrenek esan digunez, "janari xahuketa arazo bat da, gero handiagoa. Ekimenaren helburua da sormenaz janari horri beste erabilera bat eta beste bizi bat ematea. Hemen bota behar ziren janariekin bestelako jatekoak prestatu ditugu. Jendeak janari hori beste gauza batzuk egiteko balio duela ikustea nahi dugu".

Jatekoak berrerabiliz gero Mank-en Hondakin Zerbitzuak "argi eta garbi" nabaritutako lukeela gaztigatu digu Iribarrenek, "egoki banatuta pila bat nabaritzen da. Lan gutxiago jasotzen eta tratatzen". Eta gogorarazi zuen etxeetan sortzen diren hon-

dakin % 40 materia organikoa dela. Hori auto eta auzo-konpostaren eta bosgarren edukiontzia bidez kudeatzen ari da Mank, Nafarroako, Estatuko eta Europako birziklatze mugak bete ahal izateko. Horrekin batera, ibarreko erakundeak hondakin sorrera eragozteko ekintza plana martxan du. Janari xahuketaren kontrako kanpainarekin bat egiteaz aparte, Kafe Konpondu tailerren bidez tresnen konponketa sustatzen ari da, eta ekitaldi jasangarrietarako protokoloa eta erosketa arduratsuari buruzko kanpaina ditu buruan.

Bestetik, jatetxetara ere iritsiko da janari xahuketaren kontrako astea. Perezek azaldu digunez, "oraindik jendea lotsa ematen dio sobratutako jatekoa etxera eramatea. Lotsa galdu beharko genuke. Azken finean, zurea ordaindu duzu, eta plateran dagoena bota egin behar dute. Zergatik ez dugu etxera eramanez eta hurrengo egunean jan? Zurea den jatekoa egina daukazu eta ez zara hondakin bat sortzen ari". Hori errazteko Nafarroako Hondakin Partzuergoak jatetxeetan banatzeko 75.000 ontzi berezi egin ditu: "kartoizko poltsa baten barruan berrerabil daitekeen tapper konpostagarri bat dago".

Bost aholku

Elikagaiak alferrik galtzea murrizteko bost aholku: asteko menua planifikatzea, erosketa arduratsua egitea, denboraldiko produktuak erostea, elikagaiak behar bezala kontserbatzea (hokailua tenperatura egokian izan, erosi berria atzean jarri eta atzekoa aurrera pasa) eta soberan dagoena sormenarekin erabiltzen ikastea.

BILTOKI
TARBEKAK • JETETKAK

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Astehenetik ostiralera
**Eguneko menua
10€**

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak

Inprimagailuendako
kartutxoak

948 460 477
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

PORTUKO

30 URTE

Ogia egiten

Sindikalistaren alde egiteko deia

LABek deituta borroka sindikalaren aldeko manifestazioa egingen da Iruñeko autobus geltoki zaharretik abiatuta, bihar, 17:30ean. Imanol Salinasi 21 hilabeteko espetxe zigorra jarri diote

ALTSASU

LABek mobilizazio horrekin jazarpen sindikala eta Imanol Salinas kidearen aurkako kartzela zigorra salatu nahi ditu. Altsasun bizi den sindikalista La Sangiovesa jatetxearen lan gatazkaren harira salatu zuten 2018an. Hauteskunde sindikale-tan LAB bozkatu zuten lau langileren kanporaketa salatzeke ekimena egin zuten jatetxe parean eta barruan.

Sindikatuak eta enpresak akordioa lortu zuten eta nahi zuten langileek bueltatzeko aukera izan zuten. Baina Foruzaingoaren eta fiskaltzaren salaketak epaitegian bidea egin zuen eta epaileak Salinasi 21 urteko espetxe zigorra ezarri zion. Aurretik, beste lan gatazka bategatik 18 hilabeteko espetxe zigorra zuen eta jatetxeko gertakariak izan zirenean aurrekariak desagertuak ez zeudenez, berrerortzeagatik kartzelara sartzera zigortu zuen. "Askatasun sindikalaren kontrako eskubide urraketa" gisa ikusten du Salinasek epaia. Helegitea aurkeztu zion eta epai berriaren zain dago Salinas. Eta aurreratu du epaia berretsiz gero ez dela kartzelara bere borondatze joanen.

Salinasek beste lan gatazka bategatik beste epaiketa bat du



Imanol Salinas eta LABeko kideak epaitegiaren aurrean. UTZITAKOA

lastailaren 10ean. Kasu horretan Huerta de Peraltako langileen joan den urteko greba dela eta epaiko dituzte LABeko bi sindikalista. Biek azaldu dutenez, langileak greban egonda, enpresara haien ordezkari langileak sartzen ziren baita Almeriatik ekarritako produktua zuten kamioiak ere. "Horrek ekintza sindikala lehertzen zuen". Horregatik, enpresaren atean furgoneta bat kokatu zuten, sarrera horiek eragozteko. Auzipetuta dauden sindikatu abertzaleko bi kideendako hamabina hilabete-

ko espetxe zigorra eskatu dituzte.

Bi sindikalistek aurreratu dute ez direla epaiketara joanen. Azaldu dutenez, "Huerta de Peraltako greba eskubidearen urraketa gelditzeko beharrezko ekintzak epaitu nahi dituzte. Desobediencia legitimoa da injustiziak daudenean eta zigor epaitegiek ezin dute lantokietan irabazitako lan-gatazken inguruko epairik eman". Izan ere, Huerta de Peralta lantokian ere aldeak akordioa lortu zuten, baina salaketak aurrera egin zuten.



Greta Thunberg "Etorkezunaren aldeko ostiralak" protestaren bultzatzailea. UTZITAKOA

Klimaren aldeko greba deitu dute gaurko

Klima larrialdiaren aurrean gobernuei neurri eraginkorrak exijitu nahi zaizkie

SAKANA

Klimaren Aldeko Mundu Greba antolatu da gaurko. Makina bat erakunde bat egin dute deialdiarekin. Grebaren deitzaileen iritziz, "gizateriak aurrean duen erronka nagusia klima-krisia da. Horregatik, arazoaren taimainako erantzuna emateko denetariko mobilizazioak antolatu dira. Ekimen horiekin grebaren deitzaileek azaldu nahi dute "klima krisiaren alternatibak ekonomia sistemaren ardatz bihurtu behar dute, planetaren mugen barruan".

Deitzaileen iritziz "klima krisia erauzketa ekoizpen ereduaren ondorio zuzena da, nagusiki erregai fosilen erabileran eta kontsumo globalean oinarritzen dena. Horrek gizateriaren eta espezie eta ekosistema ugariaren biziraupena arriskuan jartzen du, eta behartsuenak eta zaurgarrienak eragin berezia suma-

tzen dute". Salatu dutenez, eredu hori "gero eta globalizatuagoa dago. Hirugarren lurraldeetan lan, ingurumen eta gizarte eskubide gutxiagorekin edo batere gabe egindako produktuak, eta nekazaritzako eredu gero eta industrialagoa ekonomia, ingurumen eta gizarte arazoa da".

Horrek tokiko denda eta ekoizle txikiei eragiten diela gaztigitu dute. "Merkataritza eremuen gero eta kontzentrazio handiagoak, hiriguneen turistifikazioak edo espekulazioak kanporatu egiten ditu. Ondorioz, karbono aztarna handitu egiten da". Gaurko grebarekin proiektu kooperatiboak, sozialak eta nekazaritza-ekologikokoak aldarrikatuko dituzte. "Horiek gure beharrak asetzeko lehentasuna izan behar dute. Sistema global batetik tokikoa eta jasangarria den batera aldatzeko erakunde eta lege babesa aldarrikatu behar dira".

Marino Aierra Redinen idatziak herrira bueltan

Dagoeneko liburu-dendatan dago "No me avergonce del evangelio" edizio berria

SAKANA

Marino Aierra Redinen *No me avergonce del evangelio* liburuaren edizio berria aurkeztu zen Altsasun astelehenean. Iortia kultur guneko areto txikia beteta zegoela, Marinoren alaba Te-

resak, Aierraren bizitzan aditua den Rafael Blancok, Javier Olló Martínez alkateak eta liburuaren prologoaren egilea eta Jon Jimenez Txalaparta argitaletxeko editorea izan ziren hizlari. Liburuan 1936ko estatu kolpearekin

batera Altsasura apaiz iritsi zen Aierrak hurrengo hiru urteetan herrian bizitakoak jaso zituen. Eta horrek liburuaren Altsasuko historia-memoriaren ezinbesteko lekukotza bihurtu du.

Aierrak liburuaren 1958an argitaratu zuen Periplo argitaletxean, Argentinan. Bera bizi zela beste bitan berrargitaratu zuten liburuaren. Haren aleetako batzuk ezkutuan Altsasura iritsi ziren. Beste bi edizio izan ditu. Oraingoa egiteko Altsasuko Udalak 7.000 euroko diru-laguntza eman zuen.



Rafa Blanco, Teresa Aierra, Javier Olló eta Jon Jimenez. NEREA MAZKIARAN

Beikolarko Plan Berezia egiteko prozedura abian

Iortia kultur gunean ekitaldi publikoa egin zen asteartean planaren edukiak azaltzeko. Beikolarri udalak emandako nekazaritza eta abeltzaintza erabilera atzera bota du epaiak. Udalak bizitegi erabilerarekin plan berria egin behar du

ALTSASU

Beikolarrerako hirigintza Plan Berezia egin beharra du Altsasuko Udalak. 2015eko maiatzaren 22an onartu zuena inguru horren nekazaritzarako eta abeltzaintzarako erabilera finkatu zuen. Baina lur-jabeetako batek epaitegira jo eta arrazoia eman zion, Beikolarrek bizitegi erabilera izan behar du. Udal helegitea ez zen onartu, epaia irmoa da.

Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "nahiz eta juridikoki epaiarekin ados ez egon Beikolarrerako hirigintza Plan Berezia egin beharra dugu, bizitegi erabilera jasoko duena". Epaitegiak hiru hilabete eman dizkio udalari horretarako.

Hirigintza araudian jasotako parte-hartze prozesuaren barruan udalak plana azaltzeko bilerara deitu zituen lurjabeak asteartean. Eta haiekin banaka bilduko da ere, informazio zehatza eman eta birpartzelazioa egiteko agiriak jasotzeko. Planak gehienez ere 53 familia bakarreko etxe aurrekusten ditu, beheko solairua eta altuera bat dutenak, egun dauden antzekoak. Aldi berean, udal ordezkariak lur-jabe guztiak banakako bilerak eginen ditu bakoitzari informazio zehatza eman eta birpartzelazioa egiteko agiriak jasotzeko.



Herritik 400 metro iparraldera, A-1 autobioako Murgilgo tunelen ezkerretara.

Altsasuko Udalak Beikolar urbanizatzeko 1.523.500 euroko inbertsioa egitea erabaki zuen aho batez garilaren 31n egindako bilkuran. Dirutza horretatik Altsasuko Udalak 533.000 euro jarri beharko ditu, Beikolarren hainbat jabetza baititu. Gainontzeko 990.500 euroak lur-jabeek jarri beharko dute.

Aurrekariak

Beikolar, berez, harizti komuna zen. Gaur egun zatirik handiena landaretzak hartuta du. 12 bat eraikin daude hiru garai

desberdinetakoak. Gehienak 1969ko lastailaren 24ko Nekazaritza Urbanizazio Planaren aurrekoak dira. Data horren ondoren familiek nekazaritza biltegiak jaso zituzten. Eta 2002ko Hirigintza Planaren ondoren etxebizitzak zaharberitu dira eta nekazaritza pabiloi bat jaso da.

2002ko Hirigintza Planak Beikolarrerako Plan Berezi bat aurrekusi zuen. 2015eko maiatzaren 22an. Nekazaritzarako eta abeltzaintzarako erabilera finkatu zen. Baina helegite batek udalak plana aldatzera behartu du.

Lizarra-Olatzagutia errepidean segurtasuna hobetuko dute

Errepideko bazter-babesen muturrak egokituko dituzte istripu kasuan arriskua murrizteko

OLATZAGUTIA

Urbasa zeharkatzen duen Lizarra eta Olatzagutia arteko NA-718 errepidearen ezker-eskuin hainbat bazter-babes daude, ibilgailuak bidetik ateratzen badira ezbeharrak txikiagoa izateko.

Bazter-babes horiek errepideari paralelo jarrita daude eta istripu kasuan izkinak arriskuak dira, ibilgailua errepidetik ateraz gero bazter-babesak barruan sar daitezkeelako. Hori saihesteko Lizarra eta Olatza-

gutia arteko errepidean bazter-babes guztien izkinak moldatu egingen dira eta ertz biziak kendu. Horretarako, ertz horiek lurreen edo paretaren batean sartuko dituzte. Aldi berean, hondatuta dauden bazter-babesak ere ordezkatu dituzte.

Nafarroako Gobernuak lan hori eta beste sei errepidetakoak Vallas Castiñeiras enpresari eman dio 400.000 euroren truke. Enpresa hartzaileak hiru hilabete izanen ditu lan horiek guztiak egiteko.

Gobernuak bi industrialdeen finantzaketa onartu du

Hiru enpresa berri kokatuko direla aurreratu du foru administrazioak: bi Arakilen eta bat Irurtzunen

ARAKIL / IRURTZUN

Nafarroako Gobernuak herrialdeko zazpi industrialderi bultzada emateko erabakia hartu zuen asteazkeneko bileran. Foru exekutiboak baimena eman zion Sodena (Nafarroako Garapenerako Sozietatea) sozietate publikoari Nasuvinsari 6,5 milioi euroko mailegua eman diezaion industrialde horiek finantzatzeko. Horien artean dago Arakilgo industrialdea eta Irurtzungoa. Manu Aierdi Olaizola Ekonomia eta Enpresa Garapen kontseilariak jakinarazi duenez, horri esker hiru enpresa ezarriko dira.

Arakilgo industrialde berriko lanak hasi berri dira. Nasuvinsak hura garatzeko 4,1 milioi euro bideratu ditu. 115.000 metro karratu izanen ditu. Haietatik 100.000 metro koadro oloaren produktu deribatuak ekoizti eta merkaturatzen dituen Rural Kutxaren eta Artajona kooperatibaren Harivenasa enpresarendako izanen dira. Gainerako 15.000 metro koadroak muntaketan eta banaketan diharduen enpresa batendako izanen dira. Bestetik, Aierdik aurreratu zuenez, Nasuvinsak 3.500 metro koadroko nabea eraikiko du Irurtzunen

2020ko abenduan. Irurtzunen instalatu nahian dabilen enpresaren bati alokatuko diote.

Kontseilariak aurreratu zuenez, "esku-hartze horiek Nasuvinsaren jarduketa industrialen planaren lehen faseari dagozkie. Bigarren fasean, besteak beste, Arakilgo industrialdean zoru gehiago garatzea izanen du helburu".





NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA
ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA



URRIA 4 OCTUBRE, 20:00



Plater arteko harremanak sustatuko ditu arrozak. ARTXIBOA

Arroz alez osatutako zubiak jasoko dituzte olaztiarrek

Igandean, 11:00etatik 14:00etara, San Migel plazan zazpi jatorritako arrozak prestatuko dituzte

OLATZAGUTIA

IV. Munduko Arrozak ekimenak olaztiarren arteko zubigintza egiteko ekimena da. "Denok gara komunitate bereko pertsonak. Estereotipoak eta aurreiritzi horiek botatzea da kontua. Herrian dagoen kultur aniztasunaren erakusleia eta harekin gozatzeko ekimena izanen da".

San Migel plazan nazioarteko sukaldaritzaren lagina bilakatu da. Han Maroko, Peru, Senegal, Sakana Harrera Harana, Help Na, Bulgaria eta Saharar erara prestatutako arroz errezetak izanen dira. Sukaldariak osagaiak prestatzen 11:00etan hasiko dira, beraz, eguerdi guztia izanen da handik pasa eta sukaldariei galdetzeko arroz errezetak nola prestatzen dituzten. Sukaldariei bigarren bisita 13:30ak aldera egin dakieke. Orduan arrozak dastatzeko emanen dituzte. Aukera ederra izanen

da sukaldariekin dastaketari buruzko iritziak trukatzeko. Liburuxka batean jaso dira sukaldarien errezetak, zurrumurruei kontrako errezeta berezi bat barne duena.

Anizartean zerbitzua aurten jendartean zabalik dauden zurrumurruei aurre egiteko kanpaina garatzen ari da. Munduko Arrozetan ere presente izanen da. Batetik, sukaldariak Mank-en mandarra izanen dute jantzita. Hartan errezeta aberatsean, zurrumurruek kanpoan leloa irakur liteke. Bestetik, muturra eta eskuak garbitzeko esku-zapitan ere zurrumurruek ez irenstera gonbidatuko dute: "pentsatu, ikusi, entzun edo irakurtzen dena egia den edo ez". Gainera, sukaldarien ondoan sentsibilizazio gunean zurrumurruei aurre egiteko euskarriak jarriko dituzte ere. Haurrendako jolasak ere izanen dira.

Alex kamera aurrean

ETB 2 katea "Restaurante Sin Barreras" saioa (ostegunak 22:30ean) ematen hasi zen irailaren 12an. Iñaki Urrutiak aurkezten duen saioan desgaitasun intelektuala duten zortzi gazte dira protagonista. Horietako bat da Alex altsasuarra, 22 urtekoa. Parte-hartzaileek sei asteko trebakuntza izanen dute jatetxe bateko langile bilakatzeko.



WWW.ETB.EUS



Elena Laka eta Kike Amonarriz. DANI SANCHEZ

Euskaltzaleen komunitatea erdigunera ekarri dugu

Elena Laka 2014ko apirila ezker Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari izan da eta kargua utzi egingen du. Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaritarako hautagai moduan aurkeztuko da Kike Amonarriz, gaur, Andoainen hartuko du Lakaren testigua

Monika Belaustegi SAKANA

Ez da kasualitatea Euskaltzaleen Topaguneaz hitz egiteko Bergaran elkartu izana.

E. Bai, 1996an tokian tokiko euskara elkarteek pentsatu zutenean edo pentsatu genuenean tokian tokiko egitura hori gainditzea eta horrek batuko zituen egitura nazional bat sortzea, sorrera bilera hori Bergaran egin zen. Horregatik esanahi berezia du. **K. Bai, eta, gainera, gogora datokiguru pertsona batzuk, ezta, Elena?** **E.** Bai, nik gogora ekarri nahi nituzke dagoeneko gurekin ez dauden Eibarko eta Tolosako pertsona oso esanguratsuak. Nola haiek amestu zuten Euskaltzaleen Topagunea mugimendu nazional bat, tokian tokiko mugimendua gaindituko zuena. Etxe hau eraiki ahal izateko haiek jarri zituzten oinarriak.

K. Bai, eta haiei eta haiek bezalako pertsona askori esker gaurde hemen. Mugimendu oso polita sortu zen, eta gaur egungo

Topagunearen errealitatea ulertzeko uste dut garrantzitsua dela jabetzea Topagunea ez zela sortu aurrena eta gero elkarteak etorri zirela. Ez. Kontrako bidea izan zen, oso behetik gorakoa. Elkarteak zeuden hainbat lekutan, eta elkartu beharra eta hura koordinatu beharra ikusi genuen. Nolabait, federazio bat antolatu beharra. Horrek azaltzen du zergatik euskara elkarteek daukaten horrelako nortasun propio indartsua, nire ustez, gero eta gutxiago, baina oso prozesu polita izan da ikustea nola konbinatu talde bakoitzaren indarra, autonomia eta nortasun hori, mugimendu zabal batean.

E. Gainera, atzean utzi ezin dezakegun nortasun bat dela uste

"AURRETIK ZUEN SUKALDE-LAN GUZTIA, ELKARLANAREN IDEIA GUZTIA, EUSKAL HERRI OSOAN EGITEA"

du. Erabat garrantzitsua da elkarte bakoitzak eta herri bakoitzak bere nortasuna izatea. 90eko hamarkada hasiera horretan elkarteak herriz herri sortzen hasi ginenean, denak Arrasateko AED elkartearen ondotik, bakoitzak izan zuen bere ibilbidea, eta orduan zaila zen pentsatzea egitura nazional bat izan zitekeenik. Gero, Topagunea sortu zenetik 22 urte pasatu dira jada, eta, behetik gora sortutako federazio bat izanik, talde-lan bat eginez eta gizarte mugimendu moduan. Uste dut Euskaltzaleen Topaguneko balio garrantzitsuenetako bat hori dela, ez dela erakunde pertsonalista.

Biak ere beteranoak Topagunean, eta zure kasuan, Elena, 2014a ezker lehendakaria. Oraintxe utzi duzu; zergatik?

E. Bost urte badira zerbait. Uzteko momentu bat badela uste dut. Orain, badator beste lehendakari bat. Gauza berriak egingen ditu, aro berri bat dator, eta jauzi bat aurrera egingo duena.

Hemen boluntario lan bat egiten dut, oso gustura, uste dut aktibista moduan edozein pertsonari eskatu eta eman beharreko lan bat dela, eta, hala ere, jaso egiten da gehiago eman baino.

Balorazio positiboa egiten duzu, Elena? Pozik uzten duzu? Arantzaxoren bat?

E. Balorazioa, modu pertsonalean eta aktibista moduan, eta mugimendu moduan intentsua eta positiboa izan da. Fase desberdinak igaro ditugu, baina guztiak emankorrak eta uste dut oso aberatsak izan direla. Euskaltzaleen Topaguneak jauzia eman duela uste dut. 2014an, Mikel Irizar orduko lehendakariak zioen etorkizuna genuela irabazteko, eta uste dut pusketatxo bat hortxe irabazi dugula. Jauzi handia egin dugula uste dut. Euskaltzaleen komunitatea erdigunera ekarri dugu eta hartzen dihardugu lekua, eta ez da inork ematen digulako, baizik eta guk egin dugulako jauzi hori. Arantzak? Baita ere. Uste dut mugimenduaren kohesioan badagoela oraindik sakontzeko eta lantzeko tartea.

Esku onetan uzten duzu lekukoa, eta zuk nola hartzen duzu, Kike?

K. Ba, ilusio handiz! Aurreko lehendakari guztiak epe bat bete dutela ikusi dut, eta beti gorantzako mugimenduan. Fernando Muniozgiurenekin mugimenduaren sorrera etorri zen; Joxe Mari Muxikak kooperatibismotik zekarren kudeaketarako ikuspegia txertatu zuen, eta herri komunikabideen esparruari ere eman zion kohesioa eta indarra. Karmen Irizarrekin lehenengo kongresua eta Oinarriparrak jarri ziren eta jauzi bat emateko gogoia piztu zen. Gero, Mikel Irizar etorri zen eta zoru komunarekin eta ideia berriekin salto handirako lurra ondu zuela uste dut, eta salto handi hori Elenarekin heldu da. Batetik, mugimendua zabaldu egin da Euskaraldiak ekarri duen guztiarekin. Eta ez bakarrik euskal komunitateak hartu duen protagonismoa, baizik eta horrek aurretik zuen sukalde-lan guztia, elkarlanaren ideia guztia, Euskal Herri osoan egin ahal izatea. Nire ustez, Elenarekin diskurtso aldaketa bat ere etorri da. Euskararen inguruan hitz egiteko modu berri bat, eta Elenak euskalgintzaren bilakaera hori guztiori irudikatu du. Orain, nik ilusioarekin hartuko dut, baina baita erantzukizunarekin, oso puntu onean, gainera, sekulako lana



Elena Lakak Kike Amonarrizti pasako dio Euskaltzaleen Topaguneko lekukoa. DANI SANCHEZ

egin delako urte hauetan guztietan. Lan horri beste urrats bat, beste salto bat eman behar zaio, eta mugimendua zabalitzearen bidetik eta indartzearen bidetik ikusten dut nik. Euskaraldiak euskalgintzaren eragin ahalmena biderkatu du, eta elkarlanaren bidea sakondu egin behar da, eta horri edukiak, eduki sakonak, eman behar zaizkio. Erronka, beraz, orain arte lortutako zaintzea izango da, eta horri etekina atera behar diogu.

Euskaraldia aipatu duzu, Kike, eta izan duen garrantzia. Uste duzue Euskaraldiak euskalgintzari eraldaketa ekarri diola? Zer ekarri dio?

E. Euskaraldia prozesu luze baten azkeneko begia izan da, nahiz eta jarraipena izango duen gerora. Ez da horrelako batean sortu. Euskaltzaleen Topagunean lan handia egin da aurretik. Lehenengo, mugimenduaren barruan; eta gero, euskalgintzako gainerako eragileekin, erakundeekin... Egin den lana, sortu den giroa... horren ondorio izan da Euskaraldia. Duela hamar urte Euskaraldia ezin izango zen egin, ia seguru, beste egoera batean gundelako. Eta egoera aldaketa horri denok egin diogula mesede uste dut: bai erakundeek, bai gizarte

"EGUNGO EGOERA ZUBIENA DA, ELKARLANEAN EUSKAL HERRIA EUSKALDUNTZEA"

eragileek, eta baita euskaltzaleen mugimenduak. Bakoitzak bere aldetik jarri du, eta 2017a uste dut izan zela giro aldaketarako eten bat, konfiantzan oinarritutakoa. Gaur egungo egoera zubiarena da, sareak egitearena. Eta elkarlanaren bitartez Euskal Herria euskalduntzea.

Eragileen eta erakundeen arteko elkarlana benetakoa izan da?

E. Elkarlana edo zubigintza esaten dugunean eta egiten ditugunean argazkiak horren inguruan, ez gara bakarrik titular batez ari, ez gara bakarrik argazki batez ari. Horrek, barruan, benetako gauzatzea du, eskuz esku elkarlanean gaudelako konfiantza osoz. Erabat garrantzitsua da konfiantza hori, norberak bere esparrua gordez eta elkarlanean arituz. Ondorioa Euskaraldia izan da. Elkarlan horren ondorioz sortu dugula ariketa sozial bat eta 200.000 lagunek eman dutela ize-na Euskal Herri osoan.

Zer-nolako aktibazioa, ezta?

K. Nik uste dut, gainera, inork ez genuela espero horrenbestekoa izango zenik.

E. Zerbait handia espero genuen, baina ikaragarria izan da eta ez da horretan bukatu. Orain, 2020ko Euskaraldia etorriko delako, entitate gehiagorekin, herri batzorde gehiagorekin, eta helburua, gutxienez, jende kopuru berak parte har dezala.

K. Nire ustez egon da hausnarketa bat erakunde askotan eta euskalgintzako eragile askorengan ere, eta azkenengo bost edo

sei urteetan hausnarketa asko egon dira, eta gehienak ondorio antzekoetara iritsi ziren. Horrek ahalbidetu du Euskaraldia bezalako egitasmo bat.

Elenak aipatzen zuen giro hori?

K. Bai. Eta egin kontu, azken aurreko Korrikaren erakundeen eta euskalgintzako eragileen artean egin zen kilometro bateratua. Hura izan zen, seguru aski, elkarlanaren lehen argazki soziala. Nik ez nuen espero Euskaraldian hainbeste jenderik parte hartuko zuenik. Ezta Euskal Herri osoko erakundeen elkarlana horren sakona izango zenik. Euskaraldiak Euskal Herri osoa bisualizatu du. Hor zeuden Iparraldeko erakundeetako ordezkariak, EAEko ordezkariak, Nafarroakoak, eragile sozial guztiak batera. Argazki horiek ez ziren posible duela hamar urte, arrazoi askorengatik. Hurrengo arronka izanen da, beraz, iritsi garen puntutik harantz egitea. Eta harantz esan nahi du sakonago, indartsuago eta zabalago.

Zeintzuk izango dira 2020ko Euskaraldirako arronka zehatzak?

K. Entitateetara goaz. Entitate esaten dugunean, edozein talde egituratu da. Izan liteke enpresa handi bat, txaranga bat, ikastetxe

"EUSKARALDIAREKIN ENTITATEENGANA JOANEN GARA, HAIK ERE AURRERA PAUSO BAT EMATEKO"

bat edo yoga talde bat. Entitate horietan pertsonak daude, eta, orduan, bilatzen dena da euskaraz aritzen diren ariguneak identifikatzea. Labur esanda. Horrek inplikatzeko entitate horiek barne-hausnarketa bat garatu beharko dutela esateko "guk ere aurrerapauso bat eman nahi dugu", eta, ahobizi eta belarriprest rola pertsonak aukeratu genituen bezala, entitate horretako gune batek edo entitate osoak erabaki beharko du euskaraz egin daitekeen gunerik duen ala ez, gune hori osatzen duten guztiak euskaraz ulertzen dutelako. Edo beste kanpoko harremanetan ere euskaraz egin dezaketen pertsonak daudelako. Errealitateak oso oso anitzak dira, eta entitate txikiak eta handiak daude. Guk ahal dugun guztietara heltzeko borondatea dugu. Baina horrek ere eskatzen du gizarte eragileen eta erakundeen arteko funtzioak ondo zehaztea, era guztietako entitateez hitz egiten ari garelako. Inplikazioa, beraz, handiago izango da. Horrek esan nahi du pauso bat aurrera indartsuago eta sakonago emango dugula. Eta hori lortzen badugu aurrekoan lortu genuenaren antzeko tamainan, nik uste dut bide oso indartsua zabaldu dela euskalgintzarentzat. Eta horrek energia kolektibo ikaragarri handia sor dezake.

E. Bai, horrek espazio berriak irabaztea ekarriko du. Eta gero, bigarren gauza bat, belarriprest figura arigune horietan zabaldu bada, horrek ekarriko du euskaraz egin nahi dugunok gero eta espazio gehiago izatea euskaraz aritzeko. Belarriprest figura horrek, ulertzeko gaitasun horrek, bermatzen dit niri, euskal hiztun moduan, edozein tokitan euskaraz jarduteko gai izatea, euskaraz egitea eta askatasun hori izatea. Hori ikaragarria da, espazio guztiak irabaziko ditugulako Euskaraldiko entitateen bidez.

K. Eta horrek aktibatzen du jende bat, beharbada, orain arte uzkurkuta egon dena. Zenbat jende dugu euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko gai dena eta egunerokoan erabiltzen ez duena. Jende hori guztiori aktibatzen badugu, bai norbanako gisa eta bai entitateen barruan saltoa ikaragarri handia izan liteke. Hurrengo Euskaraldian sakontzeko aukera ikaragarria izan dezakegu.

Osorik: www.guaixe.eus

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 27

URDIAIN-ALTSASU
Independentzia. Sozialismoa.
Gudari Eguna 2019.
 19:00etan, San Pedroko zabalgunean.

ALTSASU Euskaraldia batzordearen bilera.
 19:30etan, Gure Etxea eraikineko plazako atean.

ALTSASU Artebide elkartearen Altsasukoak Aske inguruko proposamen artistikoen laborategia: IzpiARIketa.
 18:00etatik 20:00etara, lortia kultur gunean.



SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin.
 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Anapurnaren treking-ari buruzko proiektzioa Txelis Rubiorekin. Antolatzailea: Altsasuko Mendigoizaleak taldea.
 21:00etan, Mendigoizaleen egoitza.

ALTSASU Padre no hay mas que uno gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
 22:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI San Miel 2019. DJ Bull ta bakailua sagardotegian.
 23:30ean, Barandi tabernan.

LARUNBATA 28

ALTSASU Altsasu-Irurtzun-Goñi-Urritzola-Altsasu 105 km-tako ibilbidea eginen du Barranka errepide txirindula taldeak.
 08:30ean, suhiltzaileen egoitza.

ETXARRI ARANATZ 12. Mikologia ikastaro teoriko-praktikoa. Larrañeta Mendi taldeak eta Hartzabalgo Mikologia taldeak antolatuta. Irakaslea: Joseba Beloki.
 09:00etatik 11:00etara, Larrañeta elkartearen.

ALTSASU Edonork gobernatzan duela ere, pentsioak babestu behar dira. Pentsio publiko duinak Sakanako Pentsiodunen Koordinakundearen manifestazioa.
 12:00etan, Foru plazan.



ETXARRI ARANATZ Niko, banpiro txiki bat magia ikuskizuna.
 17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda. Gazte guneari hasiera Gynkana erraldoiarekin.
 18:00etan, Intxostiapunta gazte txokoan.

LIZARRAGA Atzapar Rock taldearen kontzertua.
 19:30ean, Bargazpi tabernan.

IGANDEA 29

ALTSASU Linza-Gorreta 17 km-tako eta 800 m-tako ibilbidea egingo du Mendigoizaleak taldeak.
 06:00etatik 15:00etara, egoitza.

SAKANA XXVI. Sakanako Bizikleta Eguna. Sakanako Mankomunitateak antolatuta.
 09:00etan Ziorditik, Uharte Arakiler (39 km). Lizarragan hamaiketako.

ALTSASU Gazte agenda. Intxostiapunta ate irekiak.
 18:00etan, Intxostiapunta gazte txokoan.

ALTSASU Padre no hay mas que uno gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
 19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 30

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea.
 12:00etan, plazan.


ALTSASU Artebide elkartearen Altsasukoak Aske inguruko proposamen artistikoen laborategia: Sareak.
 18:30etik 20:30era, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 1

ALTSASU Artebide elkartearen Altsasukoak Aske inguruko proposamen artistikoen laborategia: Sareak.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 27



Goizean fresko xamar esnatuko da eguna, baina eguerdi aldera tenperaturak goxatu egingo dira. Arratsalderako ipar haizea etorriko da eta euri pixkat egin lezake.

Igandea, 29



Uda giroa izango da gurean. Eguzkia izango da protagonista, eta ondorioz, tenperaturek nabari egingo dute gora hego haizearengatik.

18:30etik 20:30era, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 2

ALTSASU Artebide elkartearen Altsasukoak Aske inguruko proposamen artistikoen laborategia: Sareak.
 18:30etik 20:30era, lortia kultur gunean.


OSTEGUNA 3

ALTSASU El autor zineforum filmaren emanaldia.
 19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Erase una vez en... Hollywood gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
 19:00etan, lortia kultur gunean.


ETXARRI ARANATZ Errepresaliatu gaixoak kalera, amnistia osoa. AEMren Kontzentrazioa.
 19:30ean, plazan.

Larunbata, 28




Eguzkiaren presentzia handiagoa izango da larunbatean eta honen ondorioz, tenperaturak egun guztian nahiko altuak izango dira eta ez dugu prezipitaziorik izango.

Astelehena, 30



Iraila bero bukatuko da gurean. Haizeak hego ukituarekin jarraituko du eta bero egingo du egun guztian zehar. Nahiz eta gau partean hodei gehiago sartu litezke.





IDEIAK
IRAGARKI SAILKATUETAN

iragarki@guaixe.eus

JAIOTZAK

- **Nahia Zubiaga Igeltz**, irailaren 18an Lakuntzan
- **Jakes Zabalo Etxeberria**, irailaren 22an Lakuntzan

HERIOTZAK

- **Francisco Sada Gallo**, irailaren 21ean Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

ZIKASTAROK

Mikologia ikastaroa: Ikastaro teoriko-praktikoa Etxarri Aranazko Larrañeta elkartearen irailaren 28an, lastailaren 5ean eta lastailaren 12an, 09:00etatik 11:00etara. Azken saioan Etxarriko zizen eta landareen erakusketak antolatzen lagunduko da. Irakaslea: Jose Ramon Beloki. Izen ematea 655 708 915 telefonon, 10 euro pagatu behar dira. Antolatzailerak: Larrañeta mendiko taldea eta Hartzabalgo mikologia taldea.

Arakigilo Udalaren eskaintza: Yoga (goiz eta arratsalde), soinketa lasaia, eskulanak, sukaldaritza topaketak, astelehen zoriontsuak, irriterapia eta argazkilaritza hastapenak. Izena lastailaren 2ra arte eman daiteke udalarean edo 948 500 101 edo 634 584 226 telefonon.

LEHIAKETAK

WikiLovesMonuments: Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak nazioarteko lehiaketa antolatu du. Helburua, ondare izendatutako eraikinen argazkiak egitea da, herriz herri dugun ondarea ezagutarazteko helburuarekin. Hainbat herrietako ondarea bildu nahi dute eta, besteak beste, Altsasu, Arbizu eta Uharte Arakigilo kultur ondareetako argazkiak aurkeztu daitezke irailaren 30era arte. Informazio guztia https://eu.wikipedia.org/wiki/Atari:Ondarea/WikiLovesMonuments_2019 helbidean.

Instagram BOTABA Euskal Esamoldeen Erronkaren 3.edizioa: Gazteentzako lehiaketa aur-

ten berritasunekin eta egundoko sariekin dator. "Beroketa-fasea" urrian hasiko da nola parte hartu ikasteko. Erronka Azaroaren 4tik 25era izanen da. Labayru Fundazioak antolatuta.

Egile berrientzako Iruñeko Udalaren XXIX. Euskarazko Literatur lehiaketa: parte hartu ahaliko dute nafar egileek edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenak. Poesia, Narrazioa eta Bertso-papera modalitateak. Lan bana modalitate bakoitzeko. Lanak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 5ean amaitzen da. Informazio gehiago www.iruñakulturada.eus helbidean.

OHARRAK

Txistor eguneko auzolana: Arbizuko txistor eguna lastailaren 13an izanen da. Arbizuko Udalak gaztigatu du ospakizuna antolatzeko herritarren lana "oso garrantzitsua" dela. Horregatik, egun horretan auzolanean aritu nahi dutenek udalarean, 948 460 017 telefono zenbakiaren (bulego orduetara) edo info@arbizu.eus e-posta helbidearen bidez egin dezakete. Edota zinegotzirekin bati esan da ere.

AHT-ko lanetara mendi martxa: Mugitu! Mugimenduak azaroaren 9 eta 10ean Marcilla eta Tafalla artean AHTaren aurkako mendi martxa bat antolatu du. Helburua tarte

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

horretako AHTaren proiektua ezagutzeko eta abiatu dituzten lanak bertatik bertara ikusteko da. Bestalde, zonaldeko oposizioarekiko harremanak estutzea eta marbxak zeharkatuko dituen herrietan informazioa zabaltzea da. Argibide gehiago: <http://mugitu.blogspot.com/>

Sakana Trenaren alde AHTrik Ez plataformakoa asteartero, 19:00etan, elkartzeko dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakaturik egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzeko dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AETren itsasi euskaltegiaren duzu informazio guztia guztia.

Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arba-zuarraren erronkan parte hartzera gonbidatuta zaude. Arruazutik izabarraino mendi lasterketa eta gazta trukaketa "Bideak" dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eus/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>.

www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELA



Jose Antonio Claver Abujeta

'Niño'

Beti egongo zara gure bihotzetan

57-58ko zure kintoak
Olazi



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUA, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- f Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Ezkurdia eta Bakaikoa Lau T'erdiko bi aurpegiak

PILOTA Arbizuko egungo txapelketa final laurdenetako ligaxkan sartuko da txapelketan, urriaren 13an, eta txapelketan debutatzen duen Bakaikoa, aldiz, final-zortzirenetan ekingo dio kaiolari, urriaren 5ean, Etxarri Aranatzan

Asteartean aurkeztu zuten 2019ko Lau T'erdiko Txapelketa, Bilbon. Urriaren 4an hasiko da, eta dena ongi, finala azaroaren 17an jokatu da Iruñeko Nafarroa Arenan. Joseba Ezkurdia da egungo txapelketa eta bere bigarren txapela litzatekeena lortzen saiatuko da arbizuarra, baina konpetentzia oso estu eta gaztea izango du.

Lau T'erdian parte hartuko duten 12 pilotarien adinaren batez bestekoa 25,41 urtekoa da. Plantila gaztea, beraz, beteranoak ez direla ariko erakusten duena. Izan ere, Aimar Olaizolaren eta Julen Retegiren falta nabari da. Parte hartuko duten 12 pilotarietatik 8 urriaren 4a eta 7a bitartean jokatu diren final-zortzirenetan sartuko dira: Irribarria, Victor, Bakaikoa, Jaka, Elezkano II.a, Laso, Artola eta Peio Etxeberria. Eta fase horretako irabazleek, Altuna III.a, Urrutikoetxea, Ezkurdia eta Bengoetxea VI.a izanen dituzte zain final-laurdenetako ligaxkan. Pilotari gazteena Peio Etxeberria da, 21 urterekin, eta edadetuena Oinatz Bengoetxea, 35 urterekin.

Ezkurdia, egungo txapelketa, eta Bakaikoa, debutantea

Bi dira kaiolan ariko diren sakkandarrak: iazko txapelketa duen Jo-



Bilbon egin zuten aurkezpena. Tartean daude Ezkurdia eta Bakaikoa. ASPE

"Ezkurdia txapela defendatuko du eta Bakaikoa lehen mailako kaiolan debutatuko du"

Joseba Ezkurdia eta aurten txapelketa debutatuko duen Joanes Bakaikoa etxarriarra. Bakaikoa 2018ko Bigarren Mailako Lau T'erdiko Txapelketa irabazi zuen, eta horrek aurten maila nagusian debutatzeko aukera eman zion.

Baikoko Etxarri Aranazko aurrelaria urriaren 5ean sartuko da lehian, Etxarri Aranazko ferietan, hain zuzen ere, Erik Jakaren kontra. Etxeko pilotaria jaioterrian ikusteko aukera paregabea izango da hurrengo larunbatekoa. Eta A multzoko beste partidari, Irribarriak Victor izanen du aurkari urriaren 4an Zallan jokatu den norgehiagokan. Bi partidetak irabazleek Altuna III.a eta Urrutikoetxea izanen dituzte zain final-laurdenetako ligaxkarako. B multzoan, urriaren 7an Tolosan

jokatu diren partidetan, Elezkano II.a Lasoren kontra ariko da eta Artola Peio Etxeberriaren kontra. Bi irabazleek Ezkurdia eta Bengoetxea VI.a izanen dituzte zain final-laurdenetako ligaxkan. Multzo bakoitzeko bi pilotari onenak azaroaren 2an eta 3an jokatu diren finalerdietarako sailkatuko dira, eta finalerdietako bi irabazleek final handia azaroaren 17an jokatu dute, Iruñeko Nafarroa Arenan.

Ezkurdia, gogoekin

Joseba Ezkurdia oraindik gogoan du iaz Nafarroa Arenan Altunaren kontra irabazitako Lau T'erdiko txapela. "Iazko txapelketa oso polita izan zen niretzat, mugarrria, baina nire ilusioa ez da aldatu. Hiru aste daramatzat lau eta erdikoa prestatzeko lan fisiko berezia egiten" azaldu zuen egungo txapelketa. Onartu zuen ere uda ez dela berak nahiko lukeen bezalakoa, baina irailan partida asko dituela eta "ea erritmoa har dezakedan".

Bakaikoa: "Iaz Bigarren Mailako irabazi nuenetik izan dut buruan lehen mailakoa"

Joanes Bakaikoa etxarriarra lehen mailako Lau T'erdian debutatuko du, jaioterrian gainera, urriaren 5ean, ferietan murgilduta egonen den Etxarri Aranatzan. Jakina, oso pozik dago 22 urte dituen Baiko enpresako aurrelari etxarriarra. "Iaz Bigarren Mailako irabazi nuenetik izan dut buruan Lehen Mailakoa. Ilusio handia egiten dit pilotari onenen artean egoteak" azaldu zuen aurkezpenean. Konfiantzarekin dago etxarriarra. "Denek asko jokatzen dute, baina nirea egiten badut, uste dut lehiatzeko moduan egongo naizela" gaineratu zuen.

Resano lehen mailako Nafarroako finalerako kanpo

AIZKORA Seigarrena sailkatu zen dorrobarra, 8 segundo eskasengatik, eta ez da finalean egongo

Igandean Nafarroako 1. Mailako Txapelketa kanporaketa jokatu zen Uharteko Iruñeko Toki-Alai pilotalekuan. 9 aizkolari aritu ziren: Iker Vicente (Otsagi), Jon Rekondo (Leitza), Joxean Etxeberria (Ziga), Oier Kañameres (Arostegi), Ruben Saralegi (Leitza), Juan Jose Lopez (Lezaun), Eneko Saralegi (Leitza), Iban Resano (Dorrao) eta Asier Pellejero (Areso). Julen Kañameres ere aritzeko zen, baina ezin izan zuen, lesionatuta baitago. Medikuen agiria aurkeztu zuen.

Aizkolari bakoitzak bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitu behar izan zituen, eta lehendabiziko bostek finaleko txartela zuten sari. Iker Vicentek esana zuen udan erakustaldi gutxiago egin dituela eta hobe, freskoago iristen zela finalera eta ez zen okertu. Lehia polita izan zuen Jon Rekondo leitzararekin. Biak gertu ibili ziren, baina azkenean Otsagikoa lanak bukatzen azkarrena izan zen (14:51) eta ia minutu bateko tartea aterazio Rekondori (15:46). Ruben Saralegi izan zen hirugarrena (16:08) eta Juan Jose Lopez laugarrena (16:26). Joxean Etxeberria eta Iban Resano dorrobarra bosgarren postua lortzeko lehia oso estua izan zuten, baina azkenean Etxeberria lortu zuen bosgarren postua (17:08) eta finalerako txartela, Resanoren kaltetan (17:16). Dorrobarra 8 segundo eskasengatik ezin izan zen finalerako sailkatu. Oier Kañameres 7.a sailkatu zen (17:48), Eneko Saralegi 8.a (18:38) eta Asier Pellejero 9.a (18:55). Azkeneko biek, printzipioz, maila galduko dute, baina azken aurreko sailkatuak, Eneko Saralegi, Julen Kañameresen aurkako jaitziera kanporaketa eskatzeko aukera du.

Nafarroako 1. Mailako Aizkora Txapelketa finala Donezteben jokatu da azaroaren 15ean.

Martijak gaur jakingo du San Mateotako finala jokatu duen

PILOTA Bengoetxeak eta Martijak Irribarria eta Albisu dituzte aurkari gaur; irabazleak finalera sailkatuko dira

40. San Mateotako Feriako lehendabiziko bikote finalista zein den atzo, ostegun iluntzean jakin zen. Partida bana irabaztetik iritsi ziren atzoko partidara Ezkurdia-Aretxabaleta eta Olaizola II.a-Rezusta bikoteak, eta euren ar-

teko norgehiagokak erabaki zuen igandeko lehendabiziko bikote finalista nor izanen zen. Hil ala biziko partida zen atzo Adarragan jokatu zena, baina Guaixeko erredakzioa isteko garaian partida ez zen bukatu eta ez gaude

lehen biko finalista nor izan zen aurreratzeko moduan.

Martijak gaur jakingo du finalean egonen den

B multzoan, asteazkenean, Irribarria eta Albisuri 14 eta 22 irabazi zieten Altunak eta Imazek. Hortaz, ligaxkako bi partidak galduta, txapelketa kanpo geratu dira Aramakoa eta Ataungoa. Gaur, ostiralean, 19:15etik aurrera jokatu den jaialdian (ETB1) Altunaren eta Imazen kontra lehiatuko dira Bengoetxea

VI.a eta Martija; irabazleak igandeko finalerako sailkatuko dira.

Igandean finala

Logroñoko 40. San Mateotako Feriako finala igandean jokatu da, 17:00etatik aurrera hasiko den jaialdian (ETB1). San Mateotako Feria udako bigarren torneo garrantzitsuena da, Sanferminetako Torneoaren atzetik, eta udako pilotari txapelketa nor den zehaztuko du. Bestalde, bihar, Ardoaren Desafioa jokatu da Adarragan.

Erbiti eta Izagirre Mundialetan lanera

TXIRRINDULARITZA Eliteen lasterketa igandean izanen da. Atzo Arrieta aritu zen, juniorretan

Egunotan Alacanten kontzentratuta egon da Espainiako elite mailako txirrindularitza selekzioa, Ingalaterrako Yorkshire konderrian jokatzeko ari diren Munduko Txirrindularitza Txapelketak behar bezala prestatzeko. Pascual Momparler selekzionatzailearen esanetara aritu dira, baina dagoeneko Yorkshiren daude, tartean bi sakandar Hiberriko Imanol Erbiti (Movistar Team) eta Ziordian bizi den Gorka Izagirre (Astana).

Printzipioz, helburua egungo munduko txapeldun Alejandro Valverderen (Movistar Team) alde lana egitea da. Iaz Mundiala irabazi zuen Valverdek Innsbrucken, eta aurten, 39 urterekin, atzera ere ortzadarra duen mailotara jantzi nahi du. Aipatu bi sakandar eta Valverdez gain, ondoko txirrindulariek osatuko dute Espainiako selekzioa: Jose Joaquin Rojas (Movistar), Marc Soler (Movistar), Ion Izagirre (Astana), Luis Leon Sanchez (Astana), Jonathan Castroviejo (Ineos) eta Ivan Garcia Cortina (Bahrain-Merida). Igandean, goizeko 9:40ean abiatuko den 285 km-ko lasterketa gogorra dute aurretik. Egunotan euria izan da Yorkshiren, eta iganderako ere eguraldi nahasia iragartzen dute, euriarekin.

Arrieta, atzo

Atzo, ostegunean, junior mailako errepideko lasterketa jokatu zen Mundialetan. Espainiako Junior Mailako selekzioarekin Igor Arrieta txirrindulari uharterra aritu zen, Carlos Rodriguez, Juan Ayuso, Raul Garcia eta Fernando Tercero taldekiekin, Javier Cerezo selekzionatzailearen aginduetara. Atzo jokatu zuten lasterketa, Richmond eta Harrogate artean (148 km), zenbait igoera motz baina gogor tarteko. Erredakzioa isterakoan, ez genuen emaitzaren berririk.



Aurreko urtean sekulako eguraldia egin zuen eta iganderako ere bizikleta festa ederra bizitzea espero dute antolatzaileek.

Sakana bizikletan ezagutzeko gonbita etzi

TXIRRINDULARITZA Mank-ek XXVI. Sakanako Bizikleta Eguna antolatu du igandean. Goizeko 9:00etan abiatuko da Ziorditik, Lizarragan atsedendia hartu eta Uharte Arakilen despedituko da bizikleta festa. Eguraldia lagun, parte-hartze handia espero da

Udazkenari ongi etorria emateko klasikoa bilakatu da Sakanako Bizikleta Eguna. Igandean izanen da aurtengo edizioa, 26.a dagoeneko, Ziorditik goizeko 9:00etan abiatuta. Aurten Ergoienara igoko da, Lizarragan hamaiketako egiteko, eta, ondoren, Arbizutik jaitsi eta San Migel festetan murgilduta egon den Uharte Arakilen despedituko da, 13:00ak pasa, gutxi gorabehera 39 km osatu eta gero.

Astelehenean aurkeztu zuten Sakanako Bizikleta Eguna Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak eta Burunda txirrindularitza taldeko Joxean Begiristainek. Lehen hitzak esker onekoak izan ziren. Izan ere, Sakanako Bizikleta Eguna antolatzeko Burunda, Aralar eta Barranka Txirrindulari taldeen ezinbesteko laguntza du Mankomunitateak; Berri Bikes taldeko Joaquin Beltran de Herediaren mekanikariaren laguntza; eta Aitor Mendozarena, ibilbidea isteko.

Gerrikagoitiak bihotzez eskaini zuten eguna aurrera ateratzeko egiten duten lana. Bestalde, Ziordiko, Ergoienako eta Uharte Arakilgo Udalen babesa du aurtengo Sakanako Bizikleta Egunak.

Goiza ederra pasatzea, Sakanako ezagutaraztea eta harremanak sustatzea

Sakanako Bizikleta Egunaren helburuak anitzak dira. Batetik, bizikletarekin eta ibilbide ez lehiakorrean goiz atsegina pasatzea. "Erronka da Ziordian hasi, Ergoiena gurutzatu eta Uharte Arakilerara iristea. Zailtasunaren aldetik maila ertaina du ibilbideak. Lasai goaz, bidean sartu-irteerak egiten dituztenekin elkartzeko" nabarmendu zuten Gerrikagoitiak. Bestetik, Sakanako herriak eta leku ederrak ezagutzera eman nahi dira. Eta Sakanako herri ezberdinetako bizilagunak elkar ezagutzeko eta adin ezberdineko pertsonen arteko harremana bulkatzea lortu nahi da. "Eskualdetik kanpokoei

ere zabaldu nahi diegu eguna; Iruñaldetik eta Lizarraldetik ere partaideak badatoz" gehitu zuten Gerrikagoitiak.

Aurreko urteko partaidetza espero da, 400 pertsona inguru Iganderako egun ederra iragartzen dute. Bizikleta Egunean parte-hartzeko izena ematea derrigorrezkoa da, Mank-ek aseguru kontratatu ahal izateko. "Aurretik izena eman behar da, aseguruak, autobusa erabili hala ez" azpimarratu nahi izan zuten Gerrikagoitiak. 10 urtetik gorakoak bakarrik joan daitezke, baina txikiagoek helduek lagunduta egin beharko dute bidea. Aurreko urteko parte-hartzea

"SAKANAKO BIZIKLETA EGUNEAN PARTE HARTZEAK MEREZI DU; EGUN OSO POLITA DA"

aurreikusten da, gutxi gorabehera 400 pertsonakoa.

Atsedendia Lizarragan

Lizarragan egingo dute atsedendia, hamaiketako hartzeko. "Gutxi gorabehera 11:30ak inguruan helduko gara, eta frontoi ondoan geratuko gara hamaiketako hartzera. Norberak eman behar du ogitartekoa, antolakuntzatik freskagarria banatuko dugu. Eta kontuan izan behar da ere Lizarragan Bargazpi taberna dagoela zabalik, norbaitek mokadutxoren bat hartu nahi badu" adierazi zuen kirol teknikariak.

Ibilbide gehiena bideberrietik izango da. "Pistetan bitan sartuko gara, Ziordia eta Olazti bitartean, eta Lakuntza eta Arruazu artean, gasolindegia atzetik dagoen bide horretatik" aipatu zuten Gerrikagoitiak. Lizarragatik Arbizuraino jaitsiko dira, eguna Uharte Arakilen despeditzeko. "Uharte Arakilgo festak direnez, frontoi parean bukatuko dugu. Bertan egongo da autobusa, buelta egiteko" gaineratu zuten.

Zehaztutako ibilbidea jarraitu

Ohikoa denez, bidea zabaltzen auto bat joango da –aurten Burunda klubekoa– ondoren bizikleta martxakoak, Barranka Txirrindularitza Taldeko kideek gidatuta, eta atzetik autobusa, bizikletak eramateko kamioia, Barranka taldeko furgoneta eta bidea isten duen ibilgailua, erratz-auto lanetan. Foruzaingoak ere segurtasuna zainduko du. Kaskoa ematea derrigorrezkoa da, eta garrantzitsuen antolakuntzak zehaztutako ibilbidea jarraitzea da, segurtasuna bermatzeko.

Bizikleta puntuan jartzeko deia

Iganderako bizikleta doitu eta puntuan jartzeko deia egin dute. "Mekanikariak soilik ezustekoak konponduko ditu, zulaketak eta antzekoak" nabarmendu zuten. Eta, azkenik, Sakanako Bizikleta Egunari herrietan harrera beroa egiteko deia egin zuten. "Egunean parte hartzeak merezi du; toki ederretatik pasako gara eta egun oso polita da".

Autobusa

Autobusa eta kamioia goizeko 7:45ean abiatuko dira Irurtzundik eta Sakanako herrietan geldialdiak egingen dituzte, partaideak jasotzeko. Proba bukatuta, txirrindulariak etxera joango dira autobusez.

Garaipena Mercerori eskaini zioten Ergoienan

ATLETISMOA Dorraok XV. Ergoienako Bira hartu zuen, aldi berean Joxe Mari Merceroren Oroimenezko 1. Saria izan zena. Bere taldekide Antonio Etxeberriak eta Izaskun Beunzak aurten zendutako korrikalariari eskaini zioten garaipena

Dorraok hartu zuen aurtengo Ergoienako Bira. Probaren XV. Edizioa zen aurtengoa, eta aurten zendutako Joxe Mari Merceroren korrikalari unanuarra gogoan, Joxe Mari Merceroren Oroimenezko 1. Saria izendatu zuten.

Lehenik eta behin kategoria txikiko probak jokatu ziren; 12 neska-mutiko aritu ziren eta guztiendako izan ziren dominak. Haiek bukatutakoan abiatu zen proba nagusia, 8 km-koa, Dorraon hasi eta Ergoienako beste bi herrietatik, Unanutik eta Lizarragatik pasa zena, atzera ere Dorraon despeditzeko. 44 helduk ekin zioten probari, horietatik 9 emakumezkoak. Askok Merceroren klubeko korrikalariak ziren, Beste Iruñakoak.

Euririk ez, baina haizea fin-fin zebilen Dorraon. Tenperatura ona zen, baina haizeak bereak egin zituen. Eta Ergoienako maldak zer esanik ez. Izan ere, lasterketa gorabeheratsu bat bada, hori da Ergoienakoa. Maldak nonahi, erritmoa topatzea ia ezinezkoa da. Antonio Etxeberriak ez zuen areriorik izan, aurrea hartu zuen eta bakarrik iritsi zen helmugara (33:12), hori bai, ederki sufritu eta gero. "Ez nuen gogoratzen lasterketa hau horren gogorra zenik. Zelako maldak! Eta haizearekin are okerrago!" adierazi zuen helmugara iritsi bezain pronto. Arnasa ia hartu ezinik, garaipena aurten zendutako Merceroren taldekideari eskaini zion, eta unanuarra faltan botatzen dutela gaineratu zuen. Bigarrena bere taldekide Javier Mina izan zen (34:21) eta hirugarrena Javi Moreno altsasuarra (34:47).

Beunza azkarrena

Emakumezkoetan, Izaskun Beunza olaztiarra izan zen lehena (38:52), bere taldekide Izaskun Olleta zangozarrarekin lehia estua izan eta gero (39:22). Hirugarrena Marta Malon sailka-



Izaskun Beunzak onartu zuen proba "oso gogorra" egin zitzaiola.

tu zen (42:02). Beunzak ere probaren gogortasuna nabarmendu zuen, eta garaipena Joxe Maririri eskaini nahi zionez, bere burua estutu zuela gaineratu zuen. Bestalde, Erkuden San Martin izan zen lehen sakan-

darra, emakumezkoetan laugarrena (43:15).

Sari ematea baino lehen, Joxe Mari Merceroren izan zuten gogoan bildutakoek. Haren senitartekoek lore sorta ederra jaso zuten. Ondoren, txapeldunek kattolak eta

bigarrenen eta hirugarrenen trofeoak jaso zituzten. Bestalde, korrikalari guztien artean bertako produktuekin egindako loteak zozketatu zituen antolakuntzak eta auzate ederra eskaini zitzaizen bildutakoek.

Izaskun Beunza: "Sufritutako garaipena izan da"

Beste Iruña klubeko Izaskun Beunza olaztiarrak aitortu zigunez, "oso gogorra" egin zitzaion. "Ez dakit besteak, baina ni behintzat lehertuta iritsi naiz. Iruñako taldekideei aste guztia neraman esaten Ergoienakoa lasterketa gogorra zela. Ez zuten pentsa hain gogorra zenik, baina bada. Aldapa asko daude, ez duzu zatitxo lau bat harrapatzen eta uneoro erritmoa galtzen duzu. Hau da proba gorabeheratsu bat; oraintxe bertan ez dut buruan horren gogorra den beste probarik (kar, kar...)" azaldu zigun olaztiarrak irribarrez.

Normalean Beste Iruña klubekoak larunbatean Iruñean gertzen dira entrenatzera, baina Joxe Mariren omenezko lasterketa zegoela jakin zutenean, entrenatu beharrean ahal zuten guztiek Ergoienako Birara etortzea erabaki zuten. "Sufritutako garaipena izan da. Bigarrena gertu ikusten nuen eta nire buruari esaten nion: benga... ea lortzen dugun. Joxe Marirengatik. Izan ere, pozik nago irabazteagatik, garaipena Joxe Mariri eskaintzeko" aitortu zigun.

"Jendea Joxe Marirekin asko gogoratzen da"

Apirilaren 25ean zendu zuen Joxe Mari Merceroren korrikalari beterrano unanuarra, eta Ergoienako Biran gogoan izan zuten. "Alde batetik gustura, ikusita jendea Joxe Marirekin asko gogoratzen dela, baina bestetik penarekin, bere falta sumatzen dugulako" aipatu zigun bere alargun Mari Larrazak. Oso estimatua zen korrikalarien artean. "San Fermin Txikitoetako "Cross de los carrozas" delakoan ere omenduko dute" gaineratu zuen Mari. Mercerok 12 aldiz irabazi zuen lasterketa hori. "Lasterketetan aritzea gustatzen zitzaion, jendearekin egotea; harreman handia zuen jendearekin" adierazi zuen.



Merceroren senideek lore sorta ederra jaso zuten; erdian, Mari alarguna.

Km Bertikala: sakandarrak

Uharteko Arakil-Berriain Km Bertikala osatu zuten 198 korrikalarien artean 26 sakandar zeuden. (Informazio guztia, ondoko orrialdean, Guaixe Astekariko 19. orrialdean).

Gizonak

1.Iban Murua (Elgoibar)	42:07
13.Aritz Munarriz (Etx)	48:08
14.J. L. Beraza (Uhar)	48:52
35.Aitor Mozo (Lak)	52:14
39.Jokin Bereziartu (Alts)	52:32
44.Iñaki Martiarena (Uhar)	52:47
47.Alaitz Agirre (Arb)	52:53
52.Joxeja Maiza (Etx)	53:23
54.Iker Flores (Alts)	53:49
66.Andoni Ocaña (Urd)	55:07
77.Ioseba Iza (Arb)	56:55
79.Patxi Cano (Alts)	57:03
84.Arkaitz Munarriz (Etx)	57:29
91.Eneko Otxagabia (Lak)	58:01
106.Asier Ansa (Alts)	59:19
107.Carlos Mañeru (Etx)	59:39
109.Garat Flores (Etx)	59:44
128.Roberto Jerez (Uhar)	1:01:29
136.Kepa Gordo (Arb)	1:02:15
140.Aitor Salinas (Etx)	1:03:29
155.Unai Satrustegi (Arru)	1:05:43
162.Araitz Jaka (Etx)	1:06:54
166.Jon Igoa (Etx)	1:07:25
187.Iñaki Agirre (Etx)	1:12:52

Emakumeak

12. Ainhoa Sanz (Urretxu)	47:54
132.Maite Beregaña (Uhar)	1:02:12
148.Erkuden S. Martin (Etx)	1:04:28
184.Leire Estarriaga (Etx)	1:12:01

Ergoiena Bira: sakandarrak

Dorraon jokatu zen proba.

Gizonak

1. Antonio Etxeberria	33:12
3. Javi Moreno (Alts)	34:47
4. Sergio G. Eulate (Alts)	35:20
5. Raul Audikana (Olaz)	35:42
7. Joxeja Maiza (Etx)	36:53
11. Gaizka Diaz de Garaio (Bak)	39:01
14. Iñaki Alvaro (Alts)	41:05
21. Santi Agirre (Iturm)	44:33
22. Juanpi Ariz (Bak)	44:33
31. Urko Rekalde (Lak)	46:18
32. Jon Melchor (Unanu)	46:25
33. Aingeru Azazeta (Alts)	46:51
37. Iñigo Oreja (Etx)	50:03
42. Asier Solis (Liz)	54:55

Emakumeak

9. Izaskun Beunza (Olaz)	38:52
19. Erkuden S. Martin (Etx)	43:15
34. Maitane Txueka (Arb)	47:50

Muruaren eta Sanzen erakustaldia Beriainen

MENDI LASTERKETAK Muruak bere bigarren Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala irabazi zuen eta Ainhoa Sanzek minutu batean apurtu zuen errekorra. Aritz Munarriz eta Maite Beregaña izan ziren lehen sakandarrak

Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalerako irteera hartu zuten 226 korrikalariak ez zuten euria kontra izan. Hori bai, lohia bidaide izan zuten, eta Beriain puntan lainoa. 198k lortu zuten helmugara iristea, 5 km eta 1.023 metroko desnibela gaitituta.

Sakandarrak podiumean: Munarriz, Beraza, Bereziartu, Estarriaga eta Beregaña

Iazko txapeldun Iban Muruak hasieratik erritmo gogorra ezarri zuen, eta malda gogorrenetan arerioak atzean utzi eta Beriainen iristen lehena izan zen (42:07). Minutu pasa atera zion Alain Santamariari (43:11). Hala ere, Aitor Osak 2015ean ezarritako errekorra (39:54) ezin izan zuen hobetu. Lehen sakandarra Aritz Munarriz etxarriarra izan zen, helmugan 13.a (48:08). Bere atzetik, 14. postuan, Jose Luis Beraza uharterra sartu zen (48:52), probako lehen beteteranoa eta lehen uharterra. Jokin Bereziartu



Parte hartu zuten 226 korrikalariak goizeko 10:00etan abiatu ziren Uharte Arakildik.

altsasuarra hirugarren juniorra izan zen (52:32).

Ainhoa Sanzek debut ikusgarria egin zuen: emakumezkoen txapelduna izan zen eta sailkapen absolutuan 12.a (47:54), eta iaz Oihana Azkorbebeitiak ezarri-

tako errekorra (48:54) minutu batean gaititu zuen. Maite Beregaña (1:02:12) 15. emakumea izan zen, lehen sakandarra eta lehen uharterra, eta Leire Estarriaga etxarriarra (1:12:01) hirugarren juniorra.



Iaz 45 sakandarrek osatu zuten Olatzagutia-Urbasa.

Km Bertikalari lekukoa hartuta, bihar Olatzagutia-Urbasa

MENDI LASTERKETAK 13. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa jokatu da bihar, larunbatean, 10:30ean

San Migel festei lotuta, Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa jokatu da bihar, lasterketaren 13. edizioa. Sutegi klubak antolatzen du proba, Olaztiko Udalarren laguntzarekin eta hainbat babeslerekin, eta iaz hartutako erabakiari eutsi dio taldeak: proba herrikoiagoa izateko distantzia laburragoaren alde egitea. Horrela, aurten ere ibilbide bakarra egongo da, aurreko edizioetako ibilbide laburra zenaren oso antzekoa, 15 km-koa eta 900 metroko desnibel positibokoa.

138 korrikalari daude izena emanda Sutegik iaz hartu zuen proba laburtzearen erabakia. Bertako eta inguruko korrikalariak gehiago animatzeko egin zen ibilbide laburraren alde. Ekimenak arrakasta izan zuen: 136 korrikalariak osatu zuten proba, tartean 45 sakandarrek. Xabi Lete oñatiarra (1:23:11) eta Alizia Olazabal irundarra (1:46:04) izan ziren txapeldunak, eta Joxeja Maiza etxarriarra (1:28:26) eta Izaskun Beunza olaztiarra (1:53:34) lehen sakandarrak. Aurtengorako ere antzeko parte-hartzea espero da, 138 korrikalari baitaude izena emanda. Eguraldi polita iragarri dute eta Urbasako paraje eder eta bikainez gozatzea espero dute korrikalariak.

15 km-ko ibilbide ederra Urbasa eta Andian barna

Lasterketa Olaztiko San Migel plazatik abiatuko da, 10:30ean. Korrikalariak zuzenean Urbasako ipar gailurreriako punturik altuenera joko dute, Tontorraun-

dira (1.157 m). Bira gorabeheratsua egingo dute ondoren, ekialdera Altsasuko portugainetik (1.150 m), Morterutxora jaitsi (890 m) eta segidan Zelai handitik (1.113 m) Bargainera helduko dira (1.153 m), atzera ere Morterutxora heltzeko. Hortik Olaztiko helmugarako bidea hartuko dute. Ibilbidean barna hiru hornidura gunek egongo dira eta DYAK proba zainduko du.

Auzatea eta sariak

Korrikalariak plazako helmugara iritsi bezain pronto-ordu eta erdi baino gutxiago beharko dute azkarrenek-, auzate ederra izanen dute zain. Lehen hirurek, lehen beteteranoek, lehen sakandarrak eta lehen olaztiarrek, emakumezkoek eta gizonezkoek, bertako produktuekin osatutako lote ederrak jasoko dituzte, eta txapeldunek trofeo baita ere. Eta parte-hartzaileen artean loten zozketak egingo dira.

Haurren lasterketak: motortxoak eta beste

Helduak 10:30ean abiatu bezain pronto, haurrendako lasterketak antolatu dira San Migel plazan, festak direnez, herria girotzeko. Bi proba izango dira: GP motorrak (txikien motortxoak), 4 urte bitartekoendako, eta lasterketa arrunta, 4-7 urte, 7-10 urte eta 10-13 urte bitartekoendako. Festetan giro polita egongo da eta, horregatik, Olaztira hurbiltzeko gonbita egin dute antolatzaileek, lasterketarekin gozatzeaz gain, herrian egun pasa polita egiteko.

"Asko disfrutatu dut"

MAITE BEREGAÑA LEHEN SAKANDARRA ETA LEHEN UHARTERRA

Zer moduz joan da lasterketa?

Ongi, korrika egiteko temperatura bikaina, baina lohi asko, eta lohiarekin zailagoa egiten da: irrist egiten duzu, pausu bat aurrera eta bi atzera... baina moldatu gara.

Hortaz, gaur Ainhoa Sanzek errekorra minutu batean hobetzea sekulakoa izan da...

Zuk esan bezala, sekulakoa. **Beriain punta estalita zegoen...**

Goiko zelaira iristerakoan haizeak gogor jotzen zuen, ez zegoen modurik airea hartu eta korrikan



hasteko. Lainotuta zegoen, ez zen ermita ere ikusten.

Lehen emakume sakandarra eta lehen emakume uharterra izan zara. Zure aurreikuspenak bete dira?

Bete ez, gaititu dira! Aurreko astean antolakuntzatik hots egin zidaten esateko ez zegoela Uharte Arakilgo emakumerik apuntatuta. Berriki ama izan naiz, eta dudan tarte eskasa asfaltoan korrika egiteko aprobetxatzen dut. Duela hiru urte parte hartu nuen Km Bertikalean, baina ordutik ezer. Baina izugarriko pena ematen zidan emakume uharterrik ez ateratzea, eta izena ematea erabaki nuen. Aste honetan zehozter entrenatu dut mendian, ahal nuena. Eta gaur erlojurik gabe atera naiz, ez nuen denboraren erreferentziarik izan nahi: parte hartzea eta listo. Herritarren animoekin gora iritsi naiz. Espero baino hobe aritu naiz, eta garrantzitsuena, asko disfrutatu dut.

"Akzio hutsa da motorren mundua, bizitzeko modua"

FERNANDO URRA PILOTUA

MOTOZIKLISMOA 2019ko Espainiako Supermotard Txapelketa irabazi zuen olaztiarrak irailaren 15ean Alcarraresko zirkuituan (Lleida), SM Master 30 mailan

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI

Fernando Urrea pilotu olaztiarra duela 5 urte hasi zen supermotardean, eta ordutik Master mailako Espainiako txapelketa izan da hirutan.

Egun motozikiismoa supermotardean zabilta, baina aurretik automobilismoan, karsean ibilia zara. Bai, kartingean aspaldi aritu nintzen, 2006 urte inguruan. Motorrari lotuta ibili naiz beti: enduroan, motokrosean... eta motorra karsekin partekatzen nuen. Kartingean ongi ibili nintzen, Euskadiko Karting txapelketa izan nintzen. Eta enduroan Nafarroako txapelketa izan nintzen behin. Gasolinaren munduan ibili naiz beti.

Supermotarda abiadura eta motokrosaren fusioa da? Nola definituko zenuke?

Errepide edo abiadura eta motokrosaren arteko nahasketa da. Zirkuituak egokitzen dituzte, tarteka lur-eremuak, saltoak eta maldak jartzen dituzte. Finean, zirkuituaren %60 asfaltoa izaten da eta %40 lurra. Motorraren gurrupilak asfaltokoak dira, abiadurakoak, eta horrek markatzen du diferentzia. Motokroseko gurrupilak takozkoak dira, baina supermotardean errepedeko gurrupilak lurrean sartzen dituzu.

Konplikatu izango da lur eremuan errepedeko gurrupilekin aritzea...

Bai, gurrupil horiek ez dira lurrean ongi heltzen, eta lurrean ongi ibiltzea kostatzen da. Nahiko zaila da, entrenamendu asko eskatzen du.

Non entrenatzen duzu?

Azkenaldian Kataluniara jo dut, Lleidara, han supermotard modalitateko egokituak dauden zirkuituak daudelako. Hemen abiadura edo motokrosa lantzen ditut, baina berezita; ezin ditut biak batera praktikatu, ezin dut supermotarda landu. Katalunian supermotarderako zaletasun gehiago dago eta pilotu asko dau-



Fernando Urrea, Espainiako Supermotard Txapelketan lehian. UTZITAKOA

"TXAPELDUNA ZARA, TITULUA DUZU, BAINA HURRENGO EGUNEAN BERDIN-BERDIN JOAN BEHAR DUZU LANERA"

de. Egia esan, Katalunia motozikiismoan aitzindaria da.

Noiz hasi zinen supermotardean? Hau bosgarren urtea da.

Eta bost urtean Espainiako master txapelketa hirutan izan zara? Ikusgarria, ez?

Beno (kar, kar...). 2015 urtean supermotardean murgiltzen hasi nintzen, zaletasun hutsagatik, eta modalitateari tamaina hartu nion. 2016 urtean Espainiako Txapelketako probetan lehiatu nintzen, master mailan, hau da, 30 urtetik gorako mailan, eta Kataluniako txapelketa eta Espainiako txapelketa izan nintzen. 2017 urtean ere, bi txapelketa horiek irabazi nituen. Iaz, 2018 urtean, txapelketa irabazteko aukerak nituen, liderra bainintzen, baina lasterketa batean kolpe handia hartu nuen, ezin izan nuen bukatu eta Espainiako txapelketa izan nintzen.

Eta, aurtan, Espainiako txapelketa izan naiz berriro.

Aurtengo Supermotard Txapelketak zenbat lasterketa zituen?

Guztira 10 lasterketa izan dira, baina 5 toki edo zirkuitutan. Hau da, zirkuitu bakoitzean bi lasterketa egiten dira. Lehendabiziko bi lasterketa Albidako zirkuituan jokatu ziren (Valentzia), apirilaren 6an eta 7an; hurrengo biak Burgosko Tubilla del Lagon, maiatzaren 11n eta 12an; hurrengo biak Galizako Forcarein, ekainaren 1ean eta 2an; hurrengo biak atzera ere Albaidan, uztailearen 27an eta 28an; eta, azken biak Alcarraresen, Lleidan, irailaren 14an eta 15ean.

Nolakoa da zuen lasterketa bat?

Kategoria guztietako pilotuak batera ateratzen gara: juniorrak, eliteak, masterrak... baina gero ez da sailkapen absolutua edo scratcha egiten, bakoitzak gure kategoriaren barruan puntuatzen dugu. 15 minutu eta 2 itzuli eman behar dizkiogu zirkuituari, halako bi lasterketa.

Zein motorra duzu?

Husqvarna etxekoa. Ez da moto ofiziala, nik prestatu dut. Dendan erosi eta, ondoren, nik egokitu nuen. Pilotu gehienek talde edo

moto etxe garrantzitsu eta ofizialekin lehiatzen dira, baina nik ez dut atzean talderik; ni naiz pilotua, mekanikaria...

Hortaz, zureak meritu handiagoko du...

Ez baduzu sponsor edo babeslerik zuk egin behar duzu dena. Dena den, pozik nago, talde garrantzitsuetako pilotuen mailan egon garela lehian, mundu mailan lehiatzen den jendearekin. **Puntako elite edo junior horiek alde asko duzue?**


Ez pentsa, buelta bakoitzeko gehienez segundo bat edo biko aldea, tarteka ehuneneko batzue. Oso tarte gutxi egoten da sailkapenetan. Batzuetan, 5. postutik 15. postura soilik segundo baten aldea dago, edo soilik ehunenekoak. Egin dudana denboraldia kontuan hartuta, elite mailan banengo lehen 4 postuetan sailkatuko nintzateke.

Motorra, gurrupilak, ekipazioa, entrenamenduak, lasterketako inskripzioak... hori dirutza da, eta horri kirol honetan ematen duzun denbora gehitu behar zaio. Zer ematen dizu kirol honek?

Nik zaletasunagatik egiten dut. Motorren mundua, motorra bera... bizitzeko modu bat da, gustuko dut, akzio hutsa da. Baina nahiz eta Espainiako edo Kataluniako txapelketa izan, horrek ez du ezer aldatzen. Titulu bat duzu, gogobetetze handia, baina hurrengo egunean lanera joan behar duzu berdin berdin. Sekulako ahalegin ekonomikoa egiten duzu, bueltan jasotzen ez duzuna, baina hau zaletasun hutsa da; horrek asetzen zaitu. Oso eskertuta nago Sakana Motorsport eskuderiarekin eta Ramos Industrial eta Zatika Motorrak enpresekin, urte hauetan emandako babesarengatik.

Hurrengo urtean Espainiako Txapelketan ariko zara?

Ekonomikoki aurrekontu handia eskatzen du, eta horri bidaiak, entrenamenduak, motorra puntuan jartzea, lasterketak... denbora asko gehitu behar diozu. Txapelketan ongi aritzeko denboraldi guztian egin behar da lana; sakrifizio handia da, eta gorrupilak ere atsedean hartzea eskatzen dit lehian, puntan, lau urte eman eta gero. Horrela, hurrengo urtean atsedean hartzea erabaki dut. Arantza kentzeko motokroseko edo enduroko lasterketaren batean ariko naiz, baina modu puntuean eta gozatzeko, besterik ez.



Bi gazte, aurreko edizioan.

MENDI LASTERKETAK

Etxarriko probarako izena ematea zabalik

Udaberri elkarteak Etxarriko ferietako igandean, urriaren 6an, 44. Etxarriko Mendira Joan Etorria antolatuta, Etxarri Aranzako Udalaren eta hainbat babesleren laguntzarekin. Etxarriko plazatik aterata, Hartzabalea edo Barga gainera igotzea eta jaistea da erronka (10 km, 512 m desnibel +). Etxarri Aranzako lasterketa Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako puntuagarria da. Ohiko sariez gain, errekorra apurtuz gero -emakumezkoena 52:56 eta gizonezkoena 42:50- 300 euro eskuratuko ditu txapelketa. Aipatu lasterketan izena ematea zabalik dago www.rockthesport.com web gunean, urriaren 5eko 22:00ak arte (10 euro).

TXIRRINDULARITZA Eneko Aramendia 9.a Zaldibian

Igandean IX. Zaldibia Sari Nagusia jokatu zen (105 km), afizionatuen 23 urtez azpiko Lehendakari Txapelketarako baliagarria zen azken proba. Esprint estuan Goierriko TB-Laboral Kutxa taldeko Unai Iribar gailendu zen. Bere taldekide Eneko Aramendia iturmendiarrak 9.a sartu zen. Talde bereko Ailetz Lasa zioridiarra 15.a sartu zen, eta Telcom taldean dabilen Alex Uncilla 39.a izan zen. Laboral Kutxako Iker Ballarinek irabazi du Lehendakari Txapelketa (162 puntu). Eneko Aramendia 10.a izan da (85 p.) eta Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Josu Etxeberria 11.a (85 p.). Bi sakandarrek garaipen bana lortu dute aurtan.

FUTBOL PREFERENTEA

2. JARDUNALDIKO EMAITZA

Ondalan - Lagun Artea	1-1
Etxarri Aranatz - Mutilbera B	2-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 San Jorge	6
5 Lakuntzako Lagun Artea	4
6 Etxarri Aranatz	3

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Amigo - Etxarri (Amigo)

IGANDEAN

17:00 Lagun - Arrotxapea (Lakuntza)

Etxarrik 3 puntu eta Lagunek 1

Villatuertan, Lagun Arteak partidaren kontrola hartu zuen eta Zubietak lakuntzarrendako gola sartu zuen, baina bigarren zatian Ondalan taldeak partidari tamaina hartu zion eta azken minutuan berdinketaren gola sartzea lortu zuen. Etxarri Aranatzek lehen jardunaldiko porrotari buelta ematea lortu zuen. Alainez Etxarri aurreratu zuen; Mutilberak gol aukera dezente izan zituen, baina gehiegi barkatu zuen. Eta Xabatek Etxarriren bigarrena sartu zuen.

FUTBOL ERREGIONALA

2. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Amaia - Altsasu	1-1
-----------------	-----

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1 Berriozar	6
10 Altsasu	1

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:00 Altsasu - Iruña B (Dantzaleku)

Altsasuk puntu bat ekarri zuen

Lehen zatian Amaiak menderatu zuen eta seigarren minuturako gola sartu zuten iruindarrek. Bigarren zatian partida orekatu zen; altsasuarrek ere aukerak sortu zituzten eta 82. minutuan Lobok berdinketaren gola sartzea lortu zuen.

EMAKUMEEN ERREG.

3. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasuk	Atsedena
----------	----------

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Castejon	9
15 Altsasu	0

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

12:30 Altsasu - Beti Kozkor (Dantzaleku)

Altsasuk Beti Kozkor hartuko du etzi

Igandean Lekunberriko taldea hartuko dute altsasuarrek.

Ion Cerviñok lehen mailan debutatu du

ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak Burelaren kontra denboraldiko lehen garaipena lortu zuen (3-1). Imanol Arregi entrenatzaileak Iñigo Fernandez eta Ion Cerviño harrobiko jokalariek kantxara atera zituen. 15 urterekin debutatu du irurtzundarrak

Ligako lehen partidaren Cordobaren kontra galdu izanaren arantzara atera zuen Osasuna Magna Xotak aurreko larunbatean. Etxean jokatzeko zuten ligako lehen partida zuten berdeek, eta 2.500 zale inguru bildu ziren Anaitasunan talde nafarra animatzera. Ez zen sorpresarik egon, eta zaleekin Burelaren kontrako garaipen ederra ospatu zuten Imanol Arregiren mutilek.

Fernandez eta Cerviño lanera

Osasuna Magnako jokalariek gogotsu ekin zioten Burelaren kontrako lehiari, eta galiziarren atera gehiegi hurbiltzen hasi ziren berehala. Dani Saldise eta Alex Llamas jokalariek lesionatuak bajak betetzeko burua ederki astindu behar izan zuten Imanol Arregik. Horrela, lehenik eta behin Iñigo Fernandez harrobiko jokalaria atera zen kantxara, eta Otsagikoak jokaldi politik sortu zituen; gol bat sartzekotan izan zen. Baina Juninho izan zen



Ion Cerviño, eskuinean, Iñigo Fernandez besarkatzen. XOTA

Burelako atea zulatatu zuen lehen jokalaria, Rafa Usinek jaurtikitako falta bat bikain errematatu eta gero. Tamalez, atsedenaldia baino lehen Burelak berdintzea lortu zuen eta bi taldeak horrela joan ziren aldageletara.

Bigarren zatian hasi eta Burelako atea zulatatzeko ahalegin guztiak egin zituzten berdeek. Azkenean, Araçak jaurtikitako cornerra ongi errematatu zuen Mancusok eta talde berdearen bigarren gola sartu zuen. Bure-

lak borrokan jarraitu zuen eta Asierrek zaindutako atea etengabe erasotu zuen, baina irurtzundarrak geldialdi bikainak egin zituen. Eta, bukatzeko, Martelek egindako hegaleko sake bat ongi irakurri zuen Mancusok eta hirugarren gola sartu zuen. Imanol Arregik 15 urte dituen Ion Cerviño harrobiko jokalaria irurtzundarra kantxara ateratzeko tarte ere izan zuen. Eta horrela bukatu zen partida, 3 eta 1-eko garaipenarekin.

15 urterekin lehen mailan

“Partida gogorra izan da, baina garrantzitsuena 3 puntuak eskuratzea zen eta lortu dugu” nabarmendu zuen Imanol Arregik. Harrobiko jokalariek egindako lanarekin kontentu zegoela gaineratu zuen.

Nabarmentzekoa da Ion Cerviñok 15 urte dituela eta lehen mailako ligan debutatu duen Xotako jokalaririk gazteena dela. Etorkizun paregabea du atzelari irurtzundarrak, eta bera ere pozik zegoen debutatu izanagatik. Cerviño Espainiako 17 urtez azpiko selekzioarekin ere aritu izan da, eta harrobiko taldea eta lehen mailakoa tartekatuko ditu.

Gaur Santa Coloma arerio

Sailkapen orokorrean Barça da liderra (6 puntu) eta Osasuna Magna 6.a da (3 puntu). Gaur, ostiralean, Santa Colomaren kontra jokatu du Osasuna Magnak, 18:30ean, Katalunian..

Urbasako Igoera, atzerakontua: aste bat motorzaleen festarako

AUTOMOBILISMOA Urriaren 5ean jokatu da Urbasako Igoera, Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketa izanen dena

Sakana Motorsport eskuderia lanez lepo dago. Astebete pasa falta da Urbasako Igoera jokatzeko, eta azken ukituak lotzeko unea da hau. Pilotuek gaur dute inskripzioa egiteko azken eguna, www.fotomotor.es web gunean. Antolakuntzak urriaren 3an, ostegunean, jakinaraziko du zeintzuk diren Urbasako proba mitikoan parte hartzen duten pilotuen zerrenda. Proba,aldi berean, Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketa izanen da.

Gogoratu beharra dago iaz bertan behera geratu zela Urba-

sako Igoera. Proba lehenengo aldiz antolatu zeneko 50. urterrena izan behar zen 2018koa, baina antolakuntzak proba ez ospatzeko erabakia hartzeraz derriortuta ikusi zuen bere burua, "Nafarroako Gobernuak azken orduan egindako eskaerak bete ezin" zirela eta "segurtasunean eragina" zutela argudiatuta.

Aurten badirudi eskaera guztiak betetzeko tarte egon dela eta ez dago inolako arazorik urriaren 5ean, goizeko 11:00etatik aurrera Urbasako bihurtuneetan gora puntako autoak ikusteko.



Barketa Urbasan gora, 2017ko igoeran.

Bezperan hasiko dira egiaztapenak

5,7 km-ko distantzia duen lasterketa larunbat goizean izanen da, baina Olazti eta Urbasa arteko errepidea bezperan itxiko da, urriaren 4an, ostiralean, 20:00etan.

Urbasako Igoeran parte hartuko duten autoen egiaztapen tekniko eta administratiboak ere bezperatik hasiko dira. Ostiralean, 16:30etik 20:30era 20 eta 100 zenbaki arteko dortsala duten autoen egiaztapena egingo du antolakuntzak, eta, larunbatean, 8:00etatik 9:00etara, 1 eta 20 zenbakien arteko egiaztapenak. Entrenamendu libreak larunbatean goizeko 11:00etan hasiko dira, eta entrenamendu ofizialak 13:00ak inguruan. Segidan, igoerako bi txandak jokatu dira.

Laguntza

Tamainako kirol ekitaldi hau prestatzeak antolakuntza handia eskatzen du. Bihurguneak, garbiketa, sarrerak... Sakana Motorsport lagundu nahi dutenek, jakin dezatela ateak zabalik ditzutela.



La Cigarra txarangak bota zuen aurtengo Olaztiko festetako txupinazoa, uztailen. ARTXIBOA

La Cigarra txarangaren 40 urteko "alaitasuna"

Olaztiko La Cigarra txarangak lau hamarkada bete ditu aurten. Olaztiko festetan zegoen musikaren faltari aurre egiteko, hainbat musikari instrumentuak hartu eta kalean jotzera animatu ziren. 40 urte ondoren sasoi onean mantentzen da

OLAZTI

Festetako gauetan txintzar antzera zarata handia egiten ateratzen omen zen txaranga bat Olaztiko kaleetara. Zarata horretan oinarrituta, Juan Rubio txarangako klarinete jole izandakoari txintxarraren gaztelaniazko deitura bururatu zitzaion txarangari izena jartzeko: La Cigarra. Duela 40 urte sortu zen eta urteurrena zela aurtengo uztaileko festetan txupinazoa botatzeko "ohorea" izan zuten. Musika jotzera ateratzeko "desiatzen" egoten diren arren, sanmigeletan jai hartuko du La Cigarra txarangak.

Garaiko Olaztiko festetan ez zegoen musika bandarik zein txarangarik. Hortaz, aurretik zegoen bandaren musikariak jotzera bildu ziren eta kaleak girotzera animatu ziren. "Haiek jotzen hasi ziren eta gero besteak elkartu ginen". Miguel Angel Camuel txarangako kide beteranoena da. 65 urte ditu, eta txaranga sortzen ikusi zuen. "Jose Luis Ollo ban-

daren zuzendaria zenarekin musika ikasi genuen", eta txaranga sartzera animatu ziren.

Hasierak "gogorak eta zailak" izan zirela aitortu du Camuelek, izan ere, "oso urduri" jartzen omen zen. Festak hasi aurretik lau egun baino ez zuten entseatu. Dena dela, lotsak eta urduritasunak gaingitu zituen eta 40 urte ondoren Camuel hurrengo festa iristeko zain dago, orain "oso gustura" eta ateratzeko "gogoekin" egoten da.


Hasi zirenean ez zuten espero honaino iristea, "urte asko direlako". Baina lau hamarkada hauetan txaranga etengabe berri dela azaldu du Camuelek. "Hasieratik jende gaztea sartzan hasi zen, musika eskolan ikasten ari

TXARANGA "ALAITASUN HANDIAREKIN" HARTU ZUTEN, ETA ORAINDIK HARTZEN DUTE

zen jendea". Garai batean 20 kide izatera iritsi ziren: "Txaranga bat baino, banda bat zirudien". Orain hamahiru musikari dira. Harmonia eta lagunak direla dira La Cigarra txarangaren berezitasunak eta hainbeste urtez irautearen sekretuak.

Txaranga "alaitasun handiarekin" hartu zuten herrian, eta oraindik ere "poztasunarekin" jarraitzen dutela esan du Camuelek. "Zerbait berria zen eta herriko jendea ginenez, elkar eza gutzen genuenez, poztasun handia ematen genuen". Herrirako sortu zen txaranga, herriko festetan ateratzen dira, eta herriak erantzuten du. Baina musikariak ere herriarekin ongi portatzen direla esan du: "Aurtengo festetan ekaitza egon zenean musika gelditu zen eta udalak jotzeko eskatu zigun".

Sanmigeletan ateratzeko deia izan zuten, baina kide askok ezin zuten, ez ateratzea erabaki zuten. "Dena taldean erabakitzen dugu, elkarte bat bezala".



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

Hackmeetinga: hackerren topaketa Errekaleorren

Joan den asteburuan Errekaleor auzo askea burujabetza teknologikoaren hiriburua bihurtu zen. Leku desberdinetako jendea elkartu ginen urtero egiten den hackerren arteko topaketan parte hartzeko. Bertan, hitzaldi, tailer, mahai inguru eta jarduera desberdin asko egin ziren, beti burujabetza teknologikorako bidea eginez.

Hackmeetingak hiru helburu nagusi izaten ditu. Lehenengoa, jakintza elkarbanatzea da. Kultura askearen filosofian oinarrituta egiten dira topaketa hauek eta bakoitzak dakiena besteei zabaltzea oso garrantzitsua da. Hau dela eta, egun guztia tailer eta hitzaldiz betetzen da. Adibidez, plataforma antikapitalista desberdinen aurkezpena egon zen edo e-maila internet gabe erabiltzeko aukera. Baina gauza sortzaileagoak ere izan ziren, kezka gehien eragiten duen anonimotasun faltari aurre egiteko maskara zoragarriak egin ziren tailer batean, edo mugikorrendako faraday zorroak nola egin ere aztertu zen.

Bigarrena, burujabetza teknologikoaren zabalpena egitea da. Joaten garen inguruan eragina izaten saiatzen gara. Alde batetik, topaketa egiteko espazioa uzten diguten lekuak dituen beharrei erantzunez, edo saiatzen behintzat, Internet sarea jarriz adibidez. Eta bestetik inguruko pertsonengana iristen. Aurtengoan burujabetza teknologikoaren inguruan dauden eragileak elkartu dira eta pausoak emateko oinarriak jarri dituzte.

Eta hirugarrenik, egun guztian ordenagailu aurrean lan egiten dugun pertsonen arteko gorpuztea eta erlazioa da. Urte guztian zehar pantailaren bidez erlaziozaten garen pertsonak gara eta oso garrantzitsua da leku fisiko bat izatea gure artean elkartzeko. Horregatik aisialdirako gauzak ere egiten dira Hackmeetingean, 10 minututako txarlarin, irrati grabaketak eta erregina, Negro Mate. Hackeatutako letrak dituen karaoke honek partaideen algarak eta dantzak eragiten ditu beti. Kodea aldatu ta segi aurrera!



Bi emanaldi batean

Etxarri Aranazko Abesbatzak eta Etorkezuna Dantza Eskolak musika eta dantza ikuskizuna eskaini zuten igandean, Etxarri Aranazko plazan. Euskal folkloreari lotuta errepertorioa eskaini zuten, besteak beste, 'Agurra', 'Ama begira zazu', 'Axuri beltza' edo 'Inanany' izan ziren bi taldeek interpretatu zituzten hainbat abesti.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Niko, banpiro txiki bat familiar-teko antzezlanaren izan da bihar, larunbata, 17:30ean, Etxarri Aranzako kultur etxean. Aktoreen zerrendan Xabier Artieda aktore etxarriarra dago, baita familia altsasuarra duen Hodei Domingo ere. Domingori Hodei Magoa bezala ezagutzen zaio, eta ikuskizunean Niko da.

Niko zure lehenengo aktore lana da?

Bai. Dena den, Hodei Magoaren atzean pertsonaia bat dago, baina gutxi gora behera ni naizen antzekoa da. Antzezlan honetan lehenengo aldia da zuzendari baten aurrean jartzen naizela, eta berak nahi duena sortu behar dudala. Hau da, erronka horretan sartzen naizen lehenengo aldia da. Baina oso pozik, eta oso ongi.

Musikal bat da, beraz, abesten eta kantatzen duzu ere.

Lehenengo aldia da abesten dudala. Dantza, aldiz, duela urte batzuk Irrien lagunak taldearekin egin genuen ikuskizun batean egiten nuen. Oso prozesu polita izan da. Niri musikalak gustatzen zaizkit eta bat-batean musikal batean sartzea eta sortze prozesu guztia bertatik ikustea oso polita izan da niretzat.

Gainera, magia ez duzu guztiz alde batera uzten.

Magia dago. Niko banpiro bat da eta banpiroek ez dituzte botereak, baina bai abildade bereziak. Hori magiaren bidez islatzen dugu. Ikuskizunean magiak kutsu oso sakona dauka, eta gauza oso garrantzitsuak gertatzen dira magiari esker. Diziplina anitzetako ikuskizuna da: dantza, musika, magia...

Nola agertzen da magia?

Hasieratik elkarrekin lan egin genuen. Istorioaren bozeto txiki bat zegoen eta hor begiratu genuen ea non sar zitekeen magia. Oso justifikatuta egon behar zen, hots, ez izatea trukoak magia egiteagatik. Istorioaren barruan egotea nahi genuen, ezer gertatuko ez balitz bezala. Publikoa txundituta gelditzea, baina garrantzia asko eman gabe.

Banpiro baten istorioa kontatzen da, ez al da hurrendako gai ilunegia?

Banpiro famatuena Dracula da; eta ezagutzen ditugun banpiroak beti helduak eta oso ilunak dira. Antzezlan honetan Niko mutil bat da, eskolara doa. Banpiroa da, baina ez da banpiro sentitzen. Berak badauka barnean dilema hori: ez daki zer den. Nikok Anika ezagutzen du, neskatila bat.

"Magia sentsazio metaketa bat da"

HODEI DOMINGO MAGOA

Oso gazte zela jakin zuen mago izan nahi zuela. 'Niko, banpiro txiki bat' ikuskizunean Hodei Magoaren papera alde batera utzi du, Niko pertsonaian sartzeko



Hodei Magoa 'Niko, banpiro txiki bat' ikuskizunean. UTZITAKOA

Nahiz eta gizakia izan antzeko zerbait gertatzen zaio. Ez daki zer den, nola sentitzen den. Ez da beldurrezko ikuskizuna. Musikal bat da, koloretsua, eta umore puntu oso politak dituena. Publikoari gustatzen zaio. Ikuskizuna desberdina da, mezu oso sakona dauka, baina haurrei iristeko eta ulertzeko oso ongi landuta dago.

Zerbait irakatsi nahi du?

Ikuskizuna ikustera etorri behar zarete. Baina nolakoak garen, nolakoak izan behar garen, zergatik izan behar garen besteek nahi duten modura... dilema horiei buruz hitz egiten du. Denok dauzkagun dilemak dira, denak noizbait arraro sentitu gara: uste genuena ez garelako. Eta gu garen bezala sentitu behar gara.

MAGOA

Zer da mago izatea?

Magia sentsazio metaketa bat da. Magia ikuskizun batean truko desberdinak daude, eta horiek egiteko pertsonaiak sortzen ditugu. Nire pertsonaia ironikoa da, batzuetan baldarra eta haurrekin harreman bitxia duena. Haur eztabaidetan sartzen naiz.

"MAGIA BADAGO, BAINA LEHENENGO ALDIZ EZ DUTE HODEI MAGOA AGERTOKIAN IKUSIKO"

Oso ongi funtzionatzen du. Ni bizitzan ez naiz horrelakoa.

Zer ikasi behar da magoa izateko?

Mago gehienak autodidaktak gara, etxean ikasi dugu. Txikia nintzela, 11 urterekin, mago batekin hitz egin nuen eta bidea argitu zidan. Magia dendak eta hasteko irakurri behar nituen liburuak erakutsi zizkidan, eta hortik aurrera autodidakta izan naiz. Magia kongresuetara joan naiz ere. Baina ez dago mago bihurtzeko sekretu bat.

Dohain bereziren bat behar da edo gogoak izatearekin nahikoa da?

Nahi izatea garrantzitsuena da. Askotan galdetu izan didate: magoa jaiotzen da edo sortzen da? Aktore, magoa, zirkua artista eta abar ez bazara jaiotzen edo oso txikitatik ez baduzu nahi hori azaltzen, oso zaila da gero hastea. **Konpainia sortu duzu, zaletasuna ogibide bihurtu duzu.**

18 urte bete nituenean saiatzea erabaki nuen. 22 urte ditut orain, eta ongi. Plazera da ikuskizunak gustatzea eta lekuetan errepikatzea. Baita leku berria ezagutzea ere. Horrek esan nahi du ongi egiten ari garela. Etxarri Aranzera itzultzea hasieretara itzultzea da. Etxarri egin nuen nire bigarren edo hirugarren emanaldia. 12 urte nituen eta Etxarriko plazan aritu nintzen. **Beraz, publiko ezagunaren aurrean egongo zara.**

Aurretik ikusi nauen publikoak zerbait desberdina ikusiko du, lehenengo aldiz agertokian ez dute Hodei Magoa ikusiko. Magia ikusiko dute, baita gauza askoz gehiago ere.

Magian dena asmatuta dago, edo oraindik trukoak sortzen dituzue?

Denetarik. Trukoen gure bertsioa egiten dugu, existitzen direnak gure modura birsortzen ditugu; nire pertsonalitate moldatzen ditugu.

Zer da mago izateaz gehien gustatzen zaizuna?

Jendearen ilusio aurpegia. Gure ikuskizunak familiar-tekoak dira, eta helduek oso ongi pasatzen dute, haur aurpegia jartzen dutela ikusten duzu. Eta hori da politena. Gainera, txikitari nahi nuen horretan lan egitea ere aparte motibazio bat da.

Etorkizunean interpretazioarekin jarraitzea pentsatu duzu?

Niri magia gustatzen zait, magia egiten sentitzen naiz eroso. Baina proiektu berriak etortzen badira eta bi aldeak uztartzen badira, niretako bikaina.



Iban Maia sukaldaria eta Rufi Berastegi Arbizuko Eko kanpineko bazkidea.

"Menuetan gertuko produktua oinarri dugu"

Arbizuko Eko kanpinean udazken-neguko menua aurkeztuko dute urriaren 5ean. Modu berezian aurkeztuko dute: bertso bazkari dastaketa antolatu dute. Rufi Berastegi Eko kanpineko bazkidea da eta Iban Maia kanpineko jatetxeko sukaldaria

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

1 Nola joan da uda?

Rufi. Turismo aldetik oso positiboa izan da. Aldaketa bat sumatu dugu: lehen kanpina nahiko pasakoa zen. Aurtengo udan bertara gerturatzen zirenak gau bat edo egun bat pasatzera zetozen, eta azkenean bi, hiru, lau egun edo aste bat geratu dira.

Kataluniatik beti etorri izan da jendea eta aurtengoa gehiago, baina hasi da Gaztelako eta Andaluziako jendea etortzen ere. Atzerritik, Holandako jendea aipatuko nuke. Izugarritzko gorakada izan dugu.

2 Zer prestatu duzue urriaren 5erako?

Iban. Bertso bazkari dastaketa prestatu dugu. Asteburuko menu

berriari erantzuten dio. Zerbait berezia egin nahi genuen.

3 Zergatik menu berria aurkeztu?

R. Nobedadea izango den gauza bat izango dela iruditzen zaigu. Jatetxeari beste buelta bat eman nahi genion. Jatetxe honen istorioa sorpresa izan da denontzat. Eskualdeko jendearen bilgunea bihurtu da.

4 Eta zergatik bertsolariak?

I. Kanpinean ekitaldi sozio-kulturalak egiten dira, eta horri jarraiki. Nobedade gisa ere. Bi gauzak uztartu nahi genituen, gure filosofiaren barruan sartzen direnak: alde kulturala eta gastronomia. Zerbait berritzailea da, ez dakigu noizbait Euskal Herrian horrelakorik egin den. Zergatik bi bertsolari horiek? Bertsolariak oso hurbilekoak dira. Ideia gustatu zaie.

5 Zein da menuaren oinarria?

I. Filosofia eredu bat jarraitu behar genuela pentsatu genuen: bertako produktua, bertan ekoiztua eta garaikoa. Hori da jarraitu dugun irizpidea eta hori da egin nahi duguna. Bai asteburuko menuarekin bai eguneko menuarekin. Alergikoek, beganoek eta abarrek aukerak izango dituzte.

R. Bertan lantzeko gauza asko ditugu. Esaterako, baba txikiarena. Sakanako plater bat da eta nahiko galduta dago. Interesgarria iruditzen zaigu irudimen pixka bat, magia pixka bat, botatzea eta bertako gauzeekin gauza berriak egitea.

6 Orain udazkenean zeintzuk dira produktu horiek?

I. Asko aurreratu gabe, landuko ditugun produktuak dira, besteak beste, zizak, onddoak, orburu, eta ardi latxa lantzen ari gara.

7 Nolokoa izango da dastaketa?

I. Udazken-neguko asteburuko eguerdiko menuko plater guztien dastaketa izango da. Menuko platerak txikian izango dira: pintxo eta plateraren arteko erdibideko gauza bat. Bertsolariekin ere zerbait berria egin nahi dugu.

8 Kanpineko sukaldari berria zara, Iban. Hori da aldaketa nagusia?

I. Aldaketak daudenean dena aldatzen da. Ilusioarekin, gogoe-kin, giro onean eta zerbait hurbila izatea nahi genuen, eta hori kanpinean islatu nahi genuen. Kanpinaren ibilbidearen filosofian oinarritzen da ere. Argiñanoren eskolatik heldu naiz. Eskola horren eredu hori da: bertako produktua, hurbila, garbia, profesionala eta serioa. Eta hori hemen martxan jartzeko gogoz heldu gara.

9 Asteburukoarekin batera, eguneko menu berria ere martxan jarriko duzue?

I. Orain arte eguneko menu bat zegoen eta buelta batzuk eman dizkiogu aipatutako filosofiaren baitan. Eguneko menua indartu nahi dugu eta jendeak egunero-koan jaten duena eman nahi dugu, baina ukitu garaikideekin; gauza arrarorik gabe, eta aldi berean detaile batzuk izango ditu asteburuan izango denaren aurrerapen gisa.

10 Kultur agendaren aurkezpena izango da ere?

R. Hemen beti ari gara eraikitzen, baina zentzu zabalean: etxeak, proiektuak... Orain beste pausu bat eman dugu: aterpetxea ireki dugu. Bigarren urtez kontzertu akustikoak egiten ditugu udan, eta erantzuna handia da; horrek beste gauza batzuk egitera bultzatzen zaitu. Bai, egingo dugu.

11 Urriaren 5ean parte hartzeko, zer egin behar du jendeak?

Gure telefonora deitu (848 47 09 22), info@campingarbizu.com korreora idatzi, edo kanpinera etorri eta erosi. 27 euroko prezioa du.

BAZKIDE SARITUAK

- Leire Beltza Bengoetxea (Etxarri)
- Isabel Sevilla Cantero (Altsasu)
- M^a Jesus Palazuelo Markotegi (Etxarri)
- Yolanda Mazkianan Zelaia (Altsasu)

LASTAILEKO SARIAK:

1. SARIA:
EUREKA ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: 310EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
DONOSTIAKO AQUARIUMA: SARRERA BANA
ARTAZAKO KANPINA: 310EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

